**GOIENA TELEBISTA: JULIO IBARRARI ELKARRIZKETA, EGUAZTENEAN /26**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko otsailaren 28a • IV. urtea • 100. zenbakia • Doa




**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**KULTURA**
'Anexiñua oñatiarrez' bigarren aldiz ikusteko aukera zapatuan /18

**KIROLA**
Zikloturistek, urteko lehenengo irteera domekan/12

**ARANTXA URRETABIZKAIA**
*"Kazetari moduan eskaintzen dizkidaten lanak iritzia emateko dira"* /13


## GOIENKARIAREN 100. ZENBAKIA /4-7



ANDER GILLENEA

## Lanari ekiteko gertu

Fermin Lazkano Plazagunea enpresako Kudeaketa zuzendaria eta *Egunkaria*-ko gerente ohia lanerako gogoz itzuli zen eguaztenean Euskal Herrira. Eguen eguerdian, Martxelo Otamendirekin eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile eta kolaboratzaileekin elkartu zen Martin Ugalde kultur parkean. Iluntzean, ostera, ongi-etorria egin zioten Del Olmo epaileak aske utzitako lau lagunei. *Egunkaria*-ren itxiera dela-eta, elkarretaratzeak egin dituzte eta hainbat ekimen bultzatzen dabiltza gure ibarrean ere. **/2-3**

**GOIENKA2A: PASATUTAKO URTEOTAKO ARATUSTEAK, ARGAZKITAN /15**

# Ibarreko mozorro onenetariko batzuk

Aratusteak iritsi dira gurera. Debagoieneko herri guztietan asteburutik aurrera izango dira ekintza jendetsuenak, udalen eta herriko taldeen eskutik. Hala ere, Aratusteei ongietorria egiten lehenengo herria Eskoriatza izan da; han umeek Urdelardero Eguna ospatu zuten atzo.

Urtero moduan, mozorroak izango dira jaun eta jabe, eta betiko norgehiagoka dibertigarria hasiko da herritarren artean, ea zeinek mozorrorik originalena eta probokatzaileena asmatu. Ibarreko mozorrorik onenetariko batzuk argazkitan jaso ditugu zuendako.

**ARRASATE**

### Iazkoaren antzeko aurrekontua onartu du Udalak

Arrasateko Sozialista Abertzaleen, Eusko Alkartasunaren eta Ezker Batuaren aldeko botoekin onartu du udalbatzarrak 2003ko aurrekontua: 27 milioi euro baino apur bat gehiago. Iazkoarekin alderatuta, %1,11 hazi da aurten udal aurrekontua. **/8**

## Haizeteak kalte dezente egin ditu Debagoienean

Haizeak ibarreko herri guztietan egin ditu kalteak oraingo astean. Oñatin, Gatzagan, Aramaion eta Osintxun haizeak botatako arbolek argindarreko kableak apurtu, eta argi barik egon ziren zenbait orduntan. Eskoriatzako eta Aretxabaletako kiroldegietan ere kalte ugari egin ditu. Arrasatetik Aretxabaletarako kamino zaharra, bestalde, itxita egon zen astelehenean, arbola bat errepidera jausi zelako. **/3**

▪ *Aretxabaletako Aozaratza auzoan auto baten gainera bota zuen arbola bat*

**OÑATI**

### Lanuzteak egiteko dei egin dute Chinchurretakoek

Ia hiru aste greban egin duten Chinchurretako langileek astelehenean bi orduko lanuztea egiteko dei egin dute, langileen egoerak hobera egin ez duelako. **/3**


Denok gara euskaldunon Egunkaria

Gustura egoteko egongelak



• 6 hilabete eskura ordaintzeak dakarren deskontuarekin ordaintzeko, edo
• 4 urte interes barik

Interes barik 4 URTE

Todo Mueble Kabia

Gipuzkoa Etorbidea 28
Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko otsailaren 28a

'EGUNKARIA' ITXITA

# Elkarretaratze jendetsuak ibarreko herri guztietan 'Egunkaria'-ren alde

*Atxilotu gehienek Guardia Zibilak torturatu egin dituela salatu dute; Pello Zubiriaren osasun egoeraz kezkatuta*

GOIENKARIA

***Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera salatzeko joan den zapatuan Donostian egin zen manifestazioa izugarria izan bazen ere, eguazten iluntzean herriz herri egindako elkarretaratzeak ere jendetsuak izan dira. Bestalde, atxilotuetako lau aske geratu dira, baina sei espetxeratu egin dituzte. Gehienek tortura salaketak egin dituzte.**

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, elkarretaratzeak egin zituzten eguazten iluntzean ibarreko herri guztietan. *Egunkaria aurrera, bai euskarari* lelopean, 20:00etan egin zituzten elkarretaratzeok udaletxe aurrealdeetan. Alkate eta zinegotziak, indar politiko, sindikatu, elkarte eta taldeetako ordezkariak..., herritar ugarik hartu zuten parte elkarretaratzeetan. Elgetan, ibarreko bigarren herri txikienean, esaterako, 100 bat lagun elkartu ziren. Aspaldian herri horretan egin den elkarretaratzerik handiena izan zen. Arrasaten 500 bat elkartu ziren. Bergarakoan Victoriano Gallastegik eta Xabier Zubizarretak, Bergarako eta Arrasateko alkateak, hurrenez hurren, hartu zuten parte.

Bestalde, astean barrena hainbat manifestazio eta elkarretaratze egin dituzte ibarreko herrietan, egubakoitz iluntzean, esaterako. Horrez gain, eguaztenerako borroka eguna deitu zuen Segi gazte erakundeak. Manifestazioak egin zituzten. Eta Arrasaten zaborrontzi bi erre zituzten. Mondragon Unibertsitatean ere hainbat ekimen bultzatu dituzte ikasleek *Egunkaria*-ren itxiera salatzeko.




MIRARI ALTUBE

*Egunkaria aurrera, bai euskarari* lelopean elkarretaratzeak egin zituzten eguazten iluntzean ibarreko herrietan. Argazkian, Aretxabaletan egindakoa.

#### EUSKARAZKO EGUNKARIAREN ALDE

Kontseiluak beste hainbat ekimen bultzatzea erabaki zuen martitzenean. Martin Ugalde kultur parkean egindako batzarrean, alderdi politikoek (EAJ, EA, Batasuna, Ezker Batua, Zutik, Aralar eta ANV), sindikatuek (ELA, LAB, EHNE eta Hiru) eta gizarte eragileek hartu zuten parte. Honako erabaki hauek hartu zituzten: euskarazko egunkariaren aldeko kanpaina abiaraztea herriz herri, *Egunkaria*-ren aldeko mozioa aurkeztea udaletan, egoeraren berri ematea nazioarteko foroetan, eta elkarretaratzeetan parte hartzea.

#### LEHENDAKARIAREKIN

*Egunkaria*-ko langileen ordezkaritza Lehendakariarekin eta Kultura Sailburuarekin elkartu zen martitzenean. Langileek konpromiso zehatzak eskatu zizkioten Lehendakariari, eta honek babesa eta laguntza eskaini zien. Azkarraga sailburuarekin ere elkartu ziren eguaztenean, eta honek babesa eta interlokuzioa proposatu zien. Bestalde, Euskararen Aholku Batzordeak batzarra egin zuen gaiaren gainean berba egiteko eguen arratsaldean.

> *Elgetan ehun lagun elkartu ziren eta Arrasaten, 500 bat; eta erakundeek bat egin zuten*

#### TORTURA SALAKETAK

Lazgarriak izan ziren Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendariak martitzen gauean, Soto del Realeko espetxetik atera berri, hedabideen aurrean egin zituen adierazpenak. Bai bera, baita beste atxilotu batzuk ere, torturatu egin zituztela esan zuen. Guardia Zibilak kolpeak eta "poltsa" egin zizkiela adierazi zuen: "Nahi dutena egiten dute, arratoiak bezala tratatu gaituzte", esan zuen. Torrealdai behin eta berriro egurtu zutela ere salatu zuen Otamendik. Egoera horren aurrean, "ezin dela beste aldera begiratu" esan zuen. Bestalde, epailearen aginduz kartzelara bidali zituzten Xabier Oleagak, Iñaki Uriak eta Xabier Alegriak ere torturak jasan zituztela esan zieten euren abokatuei.

> *Kontseiluak mozioak aurkeztu ditu udaletan; tartean, ibarrekoetan*

Salaketok sinesgarriak direla adierazi zuten eguaztenean hainbat ordezkari politikok. EAJk eta EAk Angel Acebes Espainiako Barne ministroari azalpenak eman ditzala eskatu zioten. Hark erantzun zien kereila jarriko duela torturak salatzen dituztenen aurka. Bestalde, SAk eskatu zuen aske utzitako atxilotuak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean agertzea.

> *Debagoienean elkartasun herri plataformak sortu dira 'Egunkaria'-ko langileekin*

#### FERMIN LAZKANO, ASKE

Eguenean atxilotutako hamar lagunetatik hiru martitzen gauean irten ziren kalera, bermea ordainduta. Fermin Lazkano bergararra, ostera, eguazten iluntzean irten zen Soto del Realetik, hura ere bermepean. Del Olmo epaileak bergarararri ezarritako fidantza –12.000 euro– tramitatzeko zailtasunak izan zituen familiak, eta, horregatik, egun bat gehiago egin behar izan zuen kartzelan. Eguzkiñe Iturbe emaztearekin eta Esteban anaiarekin egin zuen Euskal Herrirako bidaia.

Fermin Lazkanok tratu txarrik jaso ez daudela esan zuen kartzelatik irtetean, baina, era berean, berarekin batera atxilotutakoek salatutako torturak berresten dituela esan zuen.

#### PELLO ZUBIRIA, OSPITALEAN

Bereziki larria izan da Pello Zubiria *Egunkaria*-ko lehenengo zuzendari izandakoak eta gaur egun *Argia* astekariko zuzendari albokoa denak egun hauetan bizi izan duena, aske geratu direnek adierazi dutenez: "Pellori oinaze ikaragarriak pasarazi dizkiote", esan zuten haiek. Pello ospitalean dago oraindik.

Epaileak eguazten gauean hartu zion deklarazioa, ordura arte inkomunikatuta egon ondoren, eta haren espetxeratzea agindu zuen. Hortaz, medikuek alta eman ostean espetxera eramango dute. *Argia*-ko lankideen iritziz, susmagarria da deklaratu eta espetxe zigorra jaso ostean Pellok oraindik ospitalean jarraitzea: "Hori, komisarian zerbait larria gertatu den adierazgarri dela" uste dute.

#### ONGIETORRIA

Epaileak aske utzi dituen lau lagunei, Martxelo Otamendiri, Luis Goiari, Inma Gomilari eta Fermin Lazkanori, ongietorria egin zieten eguen iluntzean Martin Ugalde kultur parkean. Eguerdian, toki berean elkarretaratzea egin zuten *Egunkaria*-ko langileek eta kolaboratzaile eta laguntzaileek.

**FERMIN LAZKANO** / PLAZAGUNEA-KO GERENTEA

# *"Gertatutako guztia euskararen alde batzeko aprobetxatu behar dugu"*

**Fermin Lazkano bergararra (44 urte) Plazagunea enpresako gerentea eta *Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko kide da. *Egunkaria*-ren aurkako operazioaren barruan atxilotuetako bat izan da, eta eguaztenean aske utzi zuten, bermea ordainduta.**





Fermin Lazkano Plazaguneako lankideekin berriro elkartu zen atzo.

**Zer moduz, Fermin? Zelan igaro dituzu egun hauek?**

Orain ondo, pozik, ingurune beltzenetik irten eta gero... Atzo (eguaztenean) etorri nintzen etxera, Eibarrera, Bergaran gurasoak eta familia agurtu eta gero. 04:30ak arte izan naiz egunkariak irakurtzen, eta izandako erreakzioen eta Donostiako manifestazioaren berri izan dut. Eta benetan hunkigarria izan da gizartearen erantzuna. Hori guztia euskararen alde batzeko aprobetxatu behar dugu. Jendearen bihotzetan hurkotasuna eta hurbiltasuna dagoela ikusten da, erro-erroan elkar maite dugula, eta euskal kulturaren baitan izan daitezkeen diferentziak eta gorabeherak gainditzeko gauza garela.

**Hala ere, egun gogorrak izan dira hauek, eta atxilotuetako batzuek tratu txarrak salatu dituzte.**

Ni neu ez naute jo, baina aldameneko lagunak bai, eta oso egun tristeak izan dira. Ziegan Martxelo Otamendirekin nengoen, 2x2 m-ko gela baten. Lehenbiziko hiru egunak benetan gogorrak izan ziren: hura *berotuta* etortzen zela antzematen nuen, nahiz eta ezin genuen elkarrekin berbarik egin ezta elkarri begiratu ere, paretara begira jartzen gintuzten-eta. Beldurrez nengoen, niri noiz tokatuko. Azkeneko bi egunak lasaiagoak izan ziren eta seigarren egunean elkar ikusi genuen. Orduan jakin genuen zeintzuk ginen atxilotutako guztiak, nahiz eta hiruzpalau ahotsengatik antzeman nituen aurretik. Bidegabekeria izan da hau guztia, gehiegikeria.

> *"Ni ez naute jo, baina aldameneko lagunak bai, eta egun oso tristeak izan dira"*

**Eta orain, zer?**

*Egunkaria* sortu zenean baino errazagoa dirudi berriz hasteak, beste batasun bat eta sentimendu askoz positiboagoa nabaritzen ditudalako. Ea lehengo egoerara laster itzultzen garen, nahiz eta oso jende baliotsua barruan geratu den. Gogor egin beharko dugu lan.

**Zein egoeratan geratzen da Plazagunea?**

Ikusi egin behar. Milaka lagun izan dira kaltetuak, tartean 60 bat webgune (euskal kulturakoak zein kanpoko beste asko ere) eta *euskalerria.org* posta zerbitzuaren erabiltzaileak, 30.000 lagun inguru. Egoera ondo aztertu, abokatuekin berba egin eta lehenbailehen lehengora itzultzen ahaleginduko gara.

POLITIKA ETA GIZARTEA

### Elkartasuna adierazteko mozioak eta plataformak

**Euskal Herriko kultura, hezkuntza eta politika taldeek abian dituzte *Egunkaria*-ri elkartasuna adierazteko ekintzak. Esparru politikoan, hainbat udaletan elkartasun mozioak aurkeztu ditu Kontseiluak. Ibarrean, Arrasaten, Bergaran eta Aramaion onartu dituzte, oraingoz.**

**Bestalde, herritarrek ere badute elkartasun plataformekin bat egiteko aukera. Elgetan, adibidez, astelehenean aurkeztuko dute herri talde hori; Aretxabaletan, joan den astean aurkeztu zuten plataforma.**

55.000 ALE

### 'Egunkaria'-k baino ale gehiago 'Egunero'-k

***Egunkaria*-k 15.000 ale inguru ateratzen zituen. Orain, bere ordezkoak, *Egunero* egunkariak, tirada hori askogatik biderkatu du: hain zuzen ere, 55.000 bat ale argitaratzen ditu. *Egunkaria*-ren tirada baino hiru aldiz altuagoa da *Egunero*-rena. Domekan, 85.000 ale banatu zituzten. Harpideen kopurua ere bikoiztu egin da.**

**Zapatuan, kale agerraldiaren harira, 2.500 harpidedun egin zituen *Egunero*-k; Reala-Osasuna partiduan, 2.200. Harpidedun egiteko, deitu 943 30 35 55 edo 943 30 35 54 telefonoetara.**

TOLOSALDEAN ERE BAI

### Tolosalden, 'Galtzaundi'-k hartu du lekukoa

***Euskaldunon Egunkaria*-k itxieraren egunean bertan jaso zituen beste komunikabide batzuen aldetik euren instalazioak erabiltzeko eskaintza; tartean, GOIENKARIArena ere. Hala, kontuak kontu, *Tolosaldean Egunero*-ren instalazioak erabiltzen ditu; eta *Tolosaldean Egunero* zenari, berriz, *Galtzaundi* aldizkariak eman dio jarraipena, ibarreko prentsak etenik izan ez dezan. Egunkari formatuan kaleratzen dute *Galtzaundi* aldizkaria ere, eta zortzi orrialde ditu.**

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Chinchurretako langileek dei egin dute asteleheneko lanuzteetan parte hartzeko

Atzo eguerdian, prentsaurrekoa eman zuten Oñatiko plazan Chinchurreta enpresako batzordekoek eta LAB eta ELA sindikatuetako metaleko arduradunek. Enpresarekin azken asteotan izan dituzten harremanetatik ez dira batere gustura irten langileen ordezkariak. Zera esan zuten: "Enpresak egindako eskaintza hasierakoa baino okerragoa da". Egoerak ez duenez hobera egin, astelehenean bi orduko lanuzteak deitu dituzte Oñatin. Goizeko errelebuan 12:00etatik 14:00etara izango da lanuztea eta arratsaldekoan, 14:00etatik 16:00etara. Herritarrei lanuzteetan parte hartzeko dei egin diete langileek. Eta zenbait enpresa eta kooperatibak lanuztea egingo dutela esan dute. Aurrerantzean itxiera egiteko asmoa dute langileek, eta gose greba ere egin lezakete. /O.E.

### 'Drogak, gizarte gaia' erakusketaren balorazioa egin dute teknikariek

Debagoieneko prebentzio-teknikariek balorazio baikorra egin dute ibarreko herri gehienetan ikusteko aukera izan dugun *Drogak, gizarte gaia* erakusketaren gainean. Erakusketaren helburua drogaren gainean herritarrek hausnarketa egitea zela esan dute teknikariek. Erakusketara hurbildu direnek drogen gainean duten iritzia eman dutenez, helburu hori guztiz bete dela adierazi diote GOIENKARIAri: "Guretako interesgarriena jasotako eztabaida eta iritziak izan dira. Informazioa jaso eta norberak analizatu eta ondorioak ateratzeak pertsonek drogen aurrean aske eta arduratsuago jokatzeko aukera ematen du, eta hori da prebentzioaren bidean lan egiteko oinarrietako bat". Erakusketa 100 lagunek baino gehiagok bisitatu dute herri gehienetan. /O.E.





Aretxabaletako Aozaratza auzoko Zuazubizar baserrian arbola bat bota zuen haizeak.

# Haizeak kalte ugari eragin ditu Debagoienean ere

*Argi barik egon dira ibarreko hainbat herritan*

OXEL EROSTARBE

**Ibarreko herri guztietan kalteak eragin ditu haizeak. Oñatin, Gatzagan, Aramaion eta Osintxun haizeak botatako arbolek argindarreko kableak apurtu, eta argi barik izan ziren zenbait ordutan. Eskoriatza eta Aretxabaletako kiroldegietan ere kalte ugari eragin ditu.**

Asteon gogor jo du haizeak ibarrean. Oñatin, Aramaion, Gatzagan eta Osintxun zuhaitzak bota zituen haizeak eta horiek argindarreko kableak apurtu zituzten. Horren ondorioz, zenbait ordutan argi barik egon dira herri horietan. Eskoriatza eta Aretxabaletako kiroldegietan ere handiak izan dira kalteak. Eskoriatzakoan haizeak hiru kristal bota zituen zapatuan eta, horren ondorioz, kantxa itxita egon da atzo arte. Aretxabaletakoan kristalak, isolatzaile panelak eta uralitazko plakak bota zituen haizeak. Eta martitzenean itxita egon zen.

**ARBOLA AUTO GAINERA AOZARATZAN**

Auzoetan ere kalte ugari eragin ditu haizeak. Aretxabaletan, Aozaratza auzoan, Zuazubizar baserri ondoan aparkatua zegoen auto baten gainera arbola bota zuen. Arkarazoko abadetxearen ondoan eta Almeneko bidean ere arbola bana bota zituen haizeak.

Arrasaten, Musakolan, Monterronen eta Aldain bota ditu haizeak arbolak.

# Ehun aste ibarra egiten

## *'Debagoiena' kontzeptua sortzen lagundu du GOIENKARIAk*

GOIENKARIA

Joan diren ehun asteoi gainbegiratua ematen badiegu –esku artean duzun aldizkari honek dituen ehun asteak, hain zuzen ere–, sorkuntza eta kultura eta pentsamolde berrikuntza asteak izan direla esatea ez da gehiegikeria izango.

2000ko abenduan sortu zen GOIENKARIA. Helburu asko zituen, eta sorketa puntu horretatik urrutiegi ziruditenak, baina, denbora joan ahala, zenbakiz zenbaki, betetzen joan direnak.

**IBARRA, OSO-OSORIK**

Lehen zegoen oinarri sendotik abiatuta –herri aldizkariak–, kontzeptu eta kultura berri bat sortu zituen GOIENKARIAk. Hain zuzen ere, *Debagoiena*-ren, eskualdearen, kontzeptua, esanahi berriz eta indartsuz jantzi du. Debagoiena da GOIENKARIAren informazio objektu eta hartzaile, eta horrek esan nahi du aldizkaria irakurriaz ibarra osoosorik moduan ulertzeko aukera dugula, eta ez, lehen bezala, herri solte batzuen multzo bezala.

Horrek ez du esan nahi aldizkariak zerbait berria asmatu duela, baizik eta lehendik zeuden elementuei osotasuna eman diela. Ibarrak dituen informazio sortzaile ugariei entzun beharra besterik ez zegoen, eta horixe da GOIENKARIAk egin duena. Debagoiena hiri bilakatuaz doa, eta herri guztietan gertatzen denak izan dezake ibarreko bizilagunongan eragina. Debagoieneko herriek gero eta lotura gehiago dituzte: erakunde publikoak, eragile sozial eta pribatuak, hezkuntza zentroak, aisialdi eta kultura gune eta zerbitzuak, eta interes eta helburu berberak.



GOIO ARANA

**Bergaran dago GOIENKARIAren egoitza nagusia; hala ere, herri aldizkarietako egoitzak ezinbesteko ekoizpen guneak dira.**

**HERRI ALDIZKARIAK, OINARRI**

Horrenbestez, GOIENKARIA herri aldizkarien batuketa baino askoz gehiago da. Baina abiapuntua haiek izan dira, eta gaur egun ere funtsezko zati dira GOIENKARIAren barne: izan ere, ibarreko herri guztiek, Oñatik izan ezik, euren edizio berezia jasotzen dute astero, GOIENKARIArekin batera. *Arrasate Press, Berrigara, Aretxagazeta, Ze Barri?, Kontuola, Goibekokale* eta *Txirritola* dira aldizkari horiek. Bestalde, Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkaria, udal aldizkaria izan arren, harremanetan dago GOIENKARIArekin, eta harekin batera banatzen da.

> *Ibarra oso-osorik hartuta, ez herri multzo moduan, aurkezten du GOIENKARIAk*

> *Herri aldizkariak dira bere funtsa, eta horiek bateratu eta osatu egiten ditu astekariak*

> *Munduko gertakarien gertuko ikuspegia ere eskaini izan du GOIENKARIAk*

GOIENKARIAk herri aldizkariak bateratu ditu, euskarri berri bat emanaz. Era berean, haiek eskaintzen duten herriko ikuspegia ibarraren osotasunarekin biribiltzen du. Hortaz, herri aldizkariak eta GOIENKARIA, edo herriko eta ibarreko informazioa elkarren betegarri dira.

Are gehiago: herri aldizkariak eta GOIENKARIA elkarrendako berri emaile ere badira, eta GOIENKARIAk sortzen dituen iritziek eta kezkek beti izango dute bozgorailu egokia, bai herri aldizkarietan bertan, bai eta GOIENKARIAren orrietan ere.

**IRITZI HARTZAILE ETA SORTZAILE**

Ibarrean pil-pilean, herritarren ahotan, zebiltzan gaiak jaso eta horietan sakondu du GOIENKARIAk bere ehun zenbakietan, elkarrizketekin, adituen iritziekin... beroiek atonduaz. Ibarrarekin zerikusi zuzena zuten gaiak landu ditu GOIENKARIAk, eta gai orokorragoek ibarrean zein eragin izango zuten azaldu du: besteak beste, tranbia, udal hauteskundeak, Internet legea, *Sustatu.com*-en jaiotza, etxebizitzen arazoa, ibarreko kultura elkarteen eta artisten ekarpenak, ibarreko osasun elkarteen jarduera, Mondragon Unibertsitatearen eta UNEDen hezkuntza eskaintza eta lorpenak…



ANDER GILLENEA
Ibarreko erakunde garrantzitsuenak izaten dira Goienaren ekitaldi publikoetan, irudikoa kasu.




GOIENKARIA
2001eko maiatzeko Legebiltzarrerako Hauteskundeak zirela-eta kaleratu zen lehenengo zenbakia.

Korronte horrek bi norabideetan zeharkatu du astekaria: GOIENKARIAk jasotako gaiak, gerora, beste hedabide batzuetan ere agertu dira, edo iritziak piztu ditu.

**ELKARRIZKETAK**

Elkarrizketen bidez, GOIENKARIAk bai ibarreko, bai eta Euskal Herriko edo mundu zabaleko gertakari eta hizpide diren gaien inguruko beste ikuspegi bat eskaini du. Horretarako, Debagoieneko eta kanpoko pertsona ezagunak gonbidatu ditu: besteak beste, Eli Galdos, Paddy Rekalde, Ruper Ordorika, Jon Abril, Jose Maria Setien, Paul Nicholson, Blanca Roncal, Carlos Garaikoetxea, Javier Madrazo, Roberto Olabe… Askotan, GOIENKARIAk munduko gertakarien gaineko gertuko ikuspegia bilatu du. Besteak beste, Venezuela, Sahara, Irlanda… eta beste leku batzuetako arazoen berri eman izan du. Galiziako hondamen ekologikoaren berri emateko, haraino joan zen GOIENKARIAko kazetari bat, abenduan.

**DISEINU BERRITZAILEA**

Edukiak bezain garrantzitsua izan da, GOIENKARIAren arrakasta azaltzeko, bere egitura eta diseinua, guztiz berriak Euskal Herriko lekuko prentsan.

GOIENKARIA bi zatitan banatzen da: lehenengoan, informazio orokorra, elkarrizketak… jasotzen ditu, eta bigarren sailean, *Goienka2a*-n, kultura eta aisialdiaren gaineko edukiak biltzen ditu, estilo arin eta irakurterrazean. Hori guztia, begietara erakargarri egiten den itxurarekin aurkeztuta. Diseinu sailak egindako lan bikainak Europako adituen errekonozimendua jaso du, eta diseinu adituek emandako hainbat sari irabazi ditu.

KATALUNIARA BEGIRA

## Eskualdeko astekari eta egunkari ugari dituzte, eta elkarte berezi bat ere badago

**Eskualde prentsaren kontzeptua ez da berria beste leku batzuetan. Gure eredurik hurbilena Kataluniakoa da. Han, hainbat aldizkakotasuneko argitalpenak dituzte, eta gehienek herri bakar baten esparrua aspaldi gainditu dute. Eskualde osorako ez ezik, gainera, aldizkari batzuek hainbat eskualde hartzen dituzte, edo edizioak dituzte eskualde baterako edo besterako. Kataluniako 46 eskualdeetatik 16k, gutxienez astekari bat dute.**

**Lekuko prentsaren onespenaren eredu garbiena da lekuko egunkariak ere badituztela: alde batetik, *Regió7* delakoa. Izenburuak dioen moduan, zazpi eskualdetarako argitaratzen da, egunero. Horrez gain, *Regió7*-k enpresa egitura oso sendoa du. Beste adibide garbi bat *El Punt* egunkaria da; horrek Kataluniako gune garrantzitsuenetariko batzuk hartzen ditu (Maresmea, eta Bartzelona, Tarragona eta Gironako eskualdeak).**

**Horrez gain, lekuko doako prentsa enpresek Associació Catalana de la Premsa Comarcal elkartean batu dituzte indarrak. Elkarte horrek 18 urte ditu dagoeneko.**

BESTEENDAKO EREDU

## GOIENKARIAk eragin nabarmena izan du Euskal Herriko lekuko aldizkarietan




**GOIENKARIAk estilo berria sortu zuen. Estilo horrek bazituen bere ikurrak: ibar oso baterako, astekaria, bi eduki motarekin… Horrek bere eragina izan zuen lekuko prentsaren pizgarri moduan. Horren adibide bat da *Anboto*, Durangaldeko astekaria; 2001eko azaroan sortu zen, eta diseinu, egitura eta eduki aldetik GOIENKARIAren senide da. 8.000 ale banatzen ditu astero. Bestetik, *Txintxarri*, Lasarte-Oriako aldizkaria, 1993tik argitaratzen zen, baina 2000n, astekari bihurtu zen. Orain, astean bitan kaleratzen da, baina egun bakoitzean estilo desberdineko albisteak lantzen ditu.**

TOPAGUNEA

## GOIENKARIAri hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio Euskara Elkarteen Federazioak

**Topagunea euskara elkarteen federazioak, bere komunikabide sailaren bidez, hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio GOIENKARIAri, beste lekuko komunikabideei bezala.**

**Alde batetik, Topagunearen sail horrek euskarazko leku hedabideak indartzea du helburu; horregatik, komunikabideei aholkularitza ematen die. Eskualde antolaketa sustatzen da ekoizpenerako gune moduan.**

**Bestalde, formazioa ere sustatzen du Topaguneak. Komunikabideendako interesgarri izan daitezkeen ikastaro eta jardunaldiak antolatzen ditu; GOIENKARIAko langileek sarritan hartu izan dute parte horietan.**

**Hirugarren jarduera arlo bat garapenarena da. Topaguneko bazkide diren herri aldizkarien kohesioa indartzea eta lankidetza bultzatzea du helburu programak. Informatika tresneriaren mantenimenduaz ere arduratzen dira teknikariak; eta informatika programa aurreratuak ere eskura jartzen ditu. Azkenik, komunikabideen edukiak kudeatuko dituen datu basea ari da diseinatzen.**

ESKORIATZAKO UDALA

Goienkaria

*Ehunetik milara,*
*eta milatik… gora!*

**Zorionak GOIENKARIA!**

# Prestigio handiko sari bi, GOIENKARIAren lana aitortzeko

*Argia Saria 2002 eta European Newspaper Award sariak jaso ditu GOIENKARIAk*




GOIENKARIA

Iaz jaso zuen GOIENKARIAk, prentsa alorrean, Argia Saria 2002. Argazkian, Eneko Azkarate zuzendaria, beste sarituekin.

GOIENKARIA

**Azken bi urte hauetan aipamen ugari izan du Debagoieneko astekariak. Azpimarratzekoa da jaso dituen bi sariak: *Argia* astekariarena eta European Newspaper Award, biak ere izen handikoak.**

Bi urte eta hiru hilabete egin ditu ibar osorako berdina den GOIENKARIAren atalak. 2001eko urrian, bestalde, ibarreko zortzi herri aldizkari formatu eta maiztasun berean ipini eta GOIENKARIAren herrietako edizio bihurtu ziren. Handik gutxira, 2002ko urtarrilean, Argia saria jaso zuen GOIENKARIAk prentsa idatzian. “Euskalde bateko herri aldizkariak egunkari formatuan biltzen dituen proiektu berritzailea dela” eta, diseinuari eta edukiari dagokienez, Debagoien osoarendako “integrazio pauso handia izan dela” azpimarratu zuen epaimahaiak.

**NAZIOARTEAN ERE NABARMENDU DA**

Euskal Herrian ez ezik, nazioartean ere nabarmendu da GOIENKARIA. Diseinua, hain justu. Izan ere, Europako diseinu onena duten egunkariak saritzen dituen Alemaniako Office for Newspaper Design-ek GOIENKARIA saritu du. *Goienka2a*-ko azalak Sailen Azal Onenen atalean aukeratu dituzte. Iazko urrian izan genuen sariaren berri, baina martxoaren 20an egingo da banaketa Alemaniako Akisgran (Aachen) hirian. Han izango dira Goienako diseinu zuzendari Goio Arana eta Iñaki Iturbe diseinatzailea. 22 herrialdetako 206 egunkariren artean saritu dute gurea ere.

European Newspaper AWARD
NEWSPAPERDESIGN










# Beste hedabide batzuendako, inspirazio iturri

*GOIENKARIAk kaleratutako datu eta istorioak behin baino gehiagotan agertu izan dira gero komunikabide handiagoetan*

GOIENKARIA

**GOIENKARIA Debagoieneko albisteen oihartzuna jasotzen duen aldizkaria baino gehiago da. Zenbakiak betetzen joan den neurrian ibarrekoen ahotan zebiltzan kezkak eta gaiak sakon jorratu ditu, askotan, erantzunak proposatuta; eta ibarrarekin zerikusia zuten pertsonaiak elkarrizketatu ditu.**

GOIENKARIAk denetariko pertsonaia entzutetsuak elkarrizketatu ditu; politika, gizarte, ekonomia, kultura, lege… arloetakoak. Horien artean, guretik kanpo oihartzun handiena izan zuena Billy Petersen *C.S.I.* telesail arrakastatsuko protagonistari egindako elkarrizketa izan zen, GOIENKARIAren 94. zenbakian. Petersenek 1974an ibarrean izan zeneko kontuak gogoratu zituen guretako, elkarrizketa esklusiboan. Horrenbesteko ikusmina sortu zuen, *Egunkaria*-k, *DV*-k, ETBk eta beste hainbat mediok elkarrizketa horren berri jaso zuten.




***Euskaldunon Egunkaria*-k eta *DV*-k GOIENKARIAren esklusibaren berri eman zuten.**

**BESTE ERREPORTAJE BATZUK**

GOIENKARIAk ateratako beste gai batzuk ere hizpide izan dituzte nazio edo estatu mailako komunikabideek. Besteak beste, errepideetako abiadura kontrolatzeko zinten eraginkortasunaren gaineko datuak; *skinhead*-en moda; ur bilatzaileen fenomenoa… Bestalde, *Sustatu.com* webgunean askotan agertzen dira GOIENKARIAko albisteak.




Aramaioko Udala
herritar guztien zerbitzura

Zorionak
GOIENKARIA!

Bixente Goikoetxea enparantza, z/g
ARAMAIO
Tel.: 945 44 5016

# ‘GOIENKARIA’ren ekarpen nagusia?



**ASIER ARANGUREN**
**Kazetari eta irakaslea**

Bai irakurle moduan, bai eta kazetari moduan, oso gustuko dut GOIENKARIA. Debagoiendarra naizen aldetik, astero jasotzen eta irakurtzen dut GOIENKARIA. Nire ustez, beharrezko argitalpena da hau, bai Debagoienarendako, bai eta, batez ere, euskarari begira, kontuan hartuta orain euskarazko komunikabideek bizi duten egoera.

Esan beharra dut, hasieran, GOIENKARIA sortu zenean, nire zalantzak banituela; baina orain, argi dago guztiz finkatuta dagoela GOIENKARIA Debagoiena osoan.

*“Beharrezkoa da GOIENKARIA, ibarrerako eta euskarazko medioen esparruan”*



**LOREA LEANIZBARRUTIA**
**Diputazioko euskara zuzendaria**

GOIENKARIAk herria gainditu du, ibarreko esparrua zabaldu eta indartuaz; elkartasuna erakutsi du herri txikiekin, hauek ere euren hitza izan dezaten; euskaldun guztiei, zahar eta gazteei, alfabetatuta daudenei eta bidean dabiltzanei, euskaraz eman die Euskal Herriaren berri; astekari bihurtuta, euskararen presentzia handitu du eskualdeko bazter guztietan...

Baina bere eragina ez da Debagoienera mugatu. GOIENKARIAk erakutsi duen sendotasun, kalitate eta lan egiteko moduagatik, aitzindari bihurtu da Euskal Herri osoaren aurrean.

*“Erakutsi duen kalitate eta lan egiteko moduagatik, aitzindari bihurtu da Euskal Herrian”*



**MIKEL LEZAMIZ**
**Soziologoa**

GOIENKARIA ibarreko herrien eta herritarren arteko loturak areagotzen laguntzen ari da, hau da, geure arteko harremanak sendotzen ari da. Urteetan eta mendeetan izan dira loturak Debagoieneko herritarren artean, ikusi bestela zenbat bikote ezkondu diren ibar honetako biztanleen artean, eta, orain, elkarren arteko lotura horiek GOIENKARIArekin handitu egin dira. Bestalde, geografikoki, Debagoiena etorkizuneko hiri handi bat bihurtzen ari da eta, horretan, GOIENKARIA eta Goiena Telebista asko laguntzen ari dira.

*“GOIENKARIA ibarreko herrien eta herritarren arteko loturak areagotzen laguntzen ari da”*

# Eta etorkizuneko asmoa?: eragin ahalmena handitu

*Eta produktu eta zerbitzu berriak eskaini*

Hedabide baten sorrerak neketsuak izaten dira beti. Are gehiago, tokiko euskarazko hedabide baten sorreraz ari bagara. Egia da, GOIENKARIAren sorrera askoz ere zailagoa izango litzatekeela, ibarreko herri aldizkarien urteetako esperientziagatik izango ez balitz; hutsetik jaioko balitz. Baina, kostatako erditzea izan zen GOIENKARIA, ondo neurtuta emandako urratsen ondorioa, Debagoieneko euskara elkarte eta herri aldizkarien arteko elkarlanetik sortua, Goiena bezala.

Hutsune bat betetzeko sortu zen GOIENKARIA: egunetik egunera indartzen doan eskualdearen beharrei erantzun eta Debagoieneko herrien arteko harremanak sendotze aldera. Eta, herri aldizkarien osagarri izateko: herriko eta eskualdeko informazioa uztartze aldera. Azpimarratzekoa da GOIENKARIA sortu eta urtebetera, ibarreko zortzi aldizkarik formatuz aldatu, denak asteroko martxan ipini eta GOIENKARIArekin bat egin zutela, herrietako edizio bihurtuz. Emandako urratsek irakurleen onespena jaso dute, horrela erakusten baitute egin ditugun inkestek.

Eta, etorkizunean zer? Oro har, GOIENKARIAren eragin ahalmena handitzea da etorkizunerako helburu nagusietako bat. Horretarako, produktu eta zerbitzu berriak eskaintzea da asmoa. Ibarreko herri guztietan banatzen den GOIENKARIAren edizioa eta herrietakoak indartu —bereziki Leintz aldeko edizioa 12 orritik 16ra pasatuz eta Oñatiko edizioa sortzeko aukerak aztertuz—; GOIENKARIA Interneten ipini; egunero kaleratzeko bideragarritasun plana egin, eta, urrats hori eman bitartean, astelehenetan ere GOIENKARIA argitaratzea dira une honetan eskuartean ditugun egitasmo batzuk. Denborak esango du...

*‘Goiena.net’ atariaren bidez ‘GOIENKARIA’ Interneten ipintzea da etorkizuneko asmoetako bat*

**Goiena.net**
Debagoieneko Interneteko ataria

**‘GOIENKARIA’ EGITEKO PROZESUA: BERRIAK JASOTZETIK ETXEETARA HELTZERAINO**

**BERGARA / Eguena /** 14:00

**IRUÑEA / Egubakoitza /** 07:00

**DEBAGOIENA / Egubakoitza /** 13:00




**‘GOIENKARIA’ EGIN ETA BIDALI**
Bergarako egoitza nagusian, eta Arrasate eta Aretxabaletako ordezkaritzetan astean zehar jasotako albisteei itxura eman eta Internetez Iruñako errotatibara bidaltzeko prestatzen dugu GOIENKARIA.

**‘GOIENKARIA’ INPRIMATU**
Sare bidez jasotako orrialdeak inprimatzen dituzte egubakoitz goizaldean Iruñako *Diario de Noticias* egunkarian. Ale guztiak inprimatu eta herrietako edizioak enkartatu ostean, kamioiz ibarrera garraiatzeko gertatzen dituzte.

**ALEAK IRISTSI DIRA: BANAKETA**
Arratsaldeko lehen ordurako GOIENKARIA eta herrietako edizioak Debagoienean daude. Arrasatera heltzen dira lehenengo eta, gero, ibarreko herri guztietara. Orduan, banatzaileak —100 inguru— etxez etxe banatzen hasten dira.



**TIRADA: 21.500 ale**

**Arrasateko edizioa**
- Arrasate: 6.380 ale
- Aramaio: 427 ale

**Bergarako edizioa**
- Bergara: 4.635 ale
- Antzuola: 490 ale
- Elgeta: 690 ale

**Leintzeko edizioa**
- Aretxabaleta: 2.220 ale
- Eskoriatza: 1.350 ale
- Gatzaga: 90 ale

- Oñati: 3.840 ale
- Postaz: 914 ale
- Besteak: 464 ale

ELGETAKO UDALA

Elgetako albisteak jaso nahi dituzula?
Sar zaitez
www.elgeta.org-en
GOIENKARIA, segi aurrera!



OÑATI

## Korrika batzordea eratu dute Oñatin, eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte

Ikastetxeetako ordezkariak, Oñatz dantza taldekoak, Laixanekoak, Gaztelekuko ordezkariak, EHEkoak eta Ereitten plataformakoak elkartu dira, besteak beste, batzorde hori osatzeko. Apirilaren 6an, domeka, 17:00ak aldera pasatuko da Korrika Oñatitik, eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte horrekin lotuta.

Martxoaren 19tik 23ra Korrikako materiala saldu eta dirua batuko dute batzordeko kideek.

Horrez gainera, hainbat kultura ekitaldi antolatzen ere badihardute. /A.I.

ANTZUOLA

## Aralar alderdiak bere proiektua aurkeztu du Antzuolan

Atzo, eguena, Juan Martin Elexpuru eta Mikel Basabe Aralar alderdiko kideak Antzuolan euren proiektua aurkeztekoak ziren.

Aurkezpen horren helburua zen, alde batetik, alderdiaren proiektua bera ezagutaraztea herritarren artean eta, bestetik, herrian taldea osatzea.

**GERTU GAE PLATAFORMA**

Bestalde, aurreko zapatuan, Gertu gae izeneko plataforma aurkeztu zuten Herriko Plazan. Ezker abertzalearen ideiak defendatzeko osatu dute herrian talde hori. / A.I.

ELGETA

## Elgeta Auzolanian plataforma aurkeztuko dute bihar arratsaldean

Ezkertiar eta abertzaleen plataforma bat aurkeztuko dute bihar, zapatua, 17:30ean, Herriko Plazan. Ibarreko gainerako herrietan moduan, Gernika Deialdiaren ondorioa da plataforma, eta Elgeta Auzolanian izena izango du. Ekitaldia jai giroan ospatuko dute.

**HIRUGARREN TALDE BAT**

Eguaztenean, 21:15ean, herrigintzan lana egingo duen talde berri bat aurkeztuko da. Hauteskundeei begira egingo du lan eta Aralarren aterkiaren pean. /O.E.



AINTZANE GARDOKI

ESKORIATZA

## Urdelardero Egunarekin hasi dira Eskoriatzako aurtengo Inauteriak; herriko ehunka umek ospatu zuten atzo, kantari, zirian sagarra eta txistorra sartuta

*Urdeixak janda, bazkaixe gero... etxekoandre zabala, leku oneko alaba* hasi eta amaitzen da gerra aurretik eta ondoren ere herriko umeek etxez etxe kantatzen zuten kantua. Txerria hiltzen zen garaian, herriko umeak, ziria eskuan hartuta, etxez etxe joaten ziren kantuan eta eskean. Orduan, etxekoandreak txerrikiak ematen zizkien umeei. Urte askoan Urdelardero Eguna ospatzeko ohitura herrian galduta egon bazen ere, Jose Arana Ikastolak ohitura zaharra berreskuratu zuen. Orain, Inauteri festei agur eginez, kantari ibiltzen dira umeak kalez kale, baina txerrikien ordez herritarrek gozokiak eta diru apurren bat ematen dizkiete umeei. Eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren, festa giro polita egon zen atzo, eguena, Eskoriatzan Urdelardero Egunean. /A.G.

ARRASATE

# Onartu dute 2003ko aurrekontua: 27.371.113 €; iaz baino %1,11 gehiago

Arrasateko Sozialista Abertzaleen, Eusko Alkartasunaren eta Ezker Batuaren aldeko botoekin onartu du udalbatzarrak 2003ko aurrekontua: 27.371.113, 75 euro. Kopuru horretatik, 25.373.460,41 euro Udalarendako izango dira, 1.775.183,01 euro Iturbide egoitzarendako eta 1.201.194,19 euro AUKEArendako (kirol zerbitzua).

Alderdi sozialistak eta EAJk proposamenaren kontra bozkatu zuten. Paco García PSE-EEko bozeramaileak adierazi zuen, besteak beste, aurrekontuan onartutako partidetako batzuk ez direla herri honetako bakearen eta bizikidetzaren aldekoak. Horrekin batera, zenbait partida sortzeko (terrorismoak eragindako kalteendako) eta beste batzuk (Eudimarendako eta Udalbiltzarendako) ezabatzeko emendakina ere aurkeztu zuten sozialistek, baina ez zen onartu.

Jose Mari Loitik, berriz, EAJren izenean Arrasate Irratiari esan zioenez, aurrekontuen kontra bozkatu dute eurek ezin izan dutelako parte hartu aurrekontuak adosteko orduan. Eta Alderdi Popularreko zinegotzia ez zen batzarrera joan.

**ZERBITZUAK ETA HIRIGINTZA**

Kontuak kontu, onartu dute aurtengo aurrekontua. Horren barruan, adibidez, ospitalean egingo duten liburutegirako 1.600.000 euro zehaztu dituzte; Cerrajerako urbanizazio lanetarako 1.200.000 euro; eta Garibaiko lur azpiko aparkalekua egiteko, 800.000 euro. /U.M.

**Zertzelada**

**7.172.802,61 euro gorde dute inbertsiotarako. Zati bat, adibidez, Musakolako zaharren etxerako izango da eta beste bat, eguzki panelak ipintzeko.**

BERGARA

# Bonbulu bota dute eta bihar, zapatua, irekiko dute Antzuolarako bidea

Astelehenean ekin zieten Bonbulu okindegi zaharra botatzeko lanei. Dagoeneko bota dute, eta gaur azken hondakinak jasotzen zihardute. Hori horrela, litekeena da bihar, zapatua, errepidea zabaltzea, Udaleko iturrien esanetan.

Bonbulu okindegia Urteaga kalean dago, Antzuolarako herri irteeran. Otsailaren 1ean, okindegiaren zati bat erori egin zen eta, errepide bazterrean dagoenez, bidera ere erori ziren harriak. Hala, errepidea ixtea erabaki zuen Udalak, segurtasuna bermatzeko. Bien bitartean, ekialdeko saihesbidea erabili behar izan dute gidariek. Hala ere, bihartik aurrera zabalik egongo da /M.B.



MONIKA BELASTEGI

**Astelehenean hasi ziren Bonbulu okindegi zaharra botatzen.**

ARETXABALETA

## Aingeru Guarda Eguna ospatuko dute herriko erretiratuek bihar

Bihar, zapatua, Aingeru Guarda Eguna ospatuko dute Basotxoko bazkideek. Aurten, 75 lagunek hartuko dute parte festan. Eta, urteroko ohiturari eutsiz, Aingeru Guarda Eguna 12:30ean hasiko dute, meza entzunaz. Gero, elkarteko bazkide nagusienei omenalditxoa egingo diete Basotxon. Hain zuzen, 90 urtetik gora dituzten bederatzi bazkidek jasoko dute omenaldia. Ospakizunak amaitzeko, arratsaldean, 14:00ak inguruan, Taberna Berrin elkartuko dira bazkaltzeko. Azkenik, bazkalostean dantzaldia izango dute. /A.L.

ARAMAIO

## Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenak

Itur Zuri Emakume Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu martxoaren 8a dela-eta. Gaur, barikua, Palestinaren gaineko hitzaldia izango da, 18:30ean, kultura etxean. Datorren martitzenean, berriz, Gozogintza ikastaroa izango da, 18:30ean, eskolako jangelan.

Eguenean, filma emango dute kultura etxean. Baina lehenago kafea hartzeko aukera egongo da, 18:30ean. Eta bukatzeko, martxoaren 7an, barikua, bingoa egingo dute, 19:00etan, eskolako jangelan; eta ostean, afaria. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

## Arabako eta ibarreko zikloturistei ongietorria

Zikloturistek martxoko lehenengo domekan Dorletako Amabirjinarengana joateko ohitura dute. Txirrindularien zaindariari lore sorta eskaintzen diote zikloturistek. Aurten Leintz Gatzagako txirrindulari lasterketak 25 urte beteko dituela eta, orain dela hilabete batzuk komisio bat lanean dabil gai horren gainean. Etzi, domekan, komisio horrek ongietorria egingo die zikloturistei Dorletako Santutegian, 11.30ean. Datozen hilabeteetarako ere hainbat ekitaldi ditu prestatuta komisioak. /A.G.

# Zabalik



GURUTZE ARIZNABARRETA

## Elkar hartuta!

**Ostegunean, azkenaldian eman den berririk tamalgarriena, euskaldun egunkariak ez beste komunikabide batzuek eman zuten. *Egunkaria*-ren egoitzak itxita eta zuzendaritzako hamar kide atxilotuta!**

***Adierazpen askatasuna, euskal prentsa eta, oro har, euskara erasotua!*** **Harridura eta ezustea nagusitu ziren lehen minututan, telefonoak eta e-mail zaparrada gero. Egia zen, behin eta berriro berresten zuten berria non-nahi momentu oro. Hasierako konmozioak, mina eta saminari utzi zion leku eta haserrea eta inpotentzia eta mila tentsio eta mila sentimendu adierazezinek hartu zuten euskararen mahaian biltzen garen milaka euskaltzaleon gogoa. Baina gu, sikiera, momentuz, hemen izanda, gure esparru umiletatik erantzun bat emateko moduan gaude. Ez dute alajaina zorte bera izan euskalgintzan dihardugunontzat erreferente diren lagun atxilotuak. Horregatik amorrazioak alde batera utzi eta burua zentratu beharra dago, norabide berean zentratu beharra gainera. Elkartasuna adierazi eta zela edo hala laguntzera hain zuzen.**

**Donostiako kaleak jendez gainezka agertu ziren iragan larunbatean. Ibilbide hasieran euria ziharduan, baina polita izan zen eguzkiak hodeitzarra zulatu eta ortzadar ederra sortu zuen unea, baita bere azpitik egunkaria aurrera oihukatuz igaro genuena ere. Itxaropen izpiak zirela sinistu behar dugu. Ez dugu ahaztu behar, ordea, itxaropena egi bihurtuko bada behintzat, ezin garela zain geratu... Gogoan izan, manifestazioko erretratua, egin beharreko bide luze baten hasiera besterik ez dela. Edozeren gainetik, denon artean egin beharreko bidea, elkarrekin, elkar hartuta eta elkarren eskutik egin beharreko bidea. Euskararik bai! *Egunkaria* aurrera!**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Euskarari erasoak

Bergarako Aranzadi Ikastolak gogor salatu nahi ditu joan den astean euskarari egindako erasoak: *Egunkaria*-ren itxiera, *Argia*, *Jakin*, Plazagunea, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa eta Ikastolen Elkartea... arakatzea, euskaraz bizi gaitezen lan egin duten 10 pertsonaren atxiloketak eta kartzelaratzeak...

Berriz ere estatu espainolak erakutsi digu bere helburua euskara desagerraraztea, euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ukatzea dela, eta ez dugu onartuko, Aranzadi Ikastolan euskaraz bizi garelako eta bizi nahi dugulako, gure hezkuntza proiektuaren aurka doalako, baita gure hizkuntza proiektuaren aurka ere.

Bergarako Aranzadi Ikastolak euskararen aldeko apustua egin zuen bere sorreratik beretik eta horretan jarraituko du, kosta ahala kosta.

Horregatik, egun hauetan zuen elkartasuna adierazi duzuen guztioi, deitutako mobilizazioetan parte hartu duzuenoi, euskara bizirik mantentzeko apustua egin duzuen herritarrei, mila esker.

Egokiera honetaz baliaturik, bestalde, aurrera egiteko deia egin nahi dizuegu adi eta erne egon gaitezen denon artean gaurdaino eraiki dugunari denon artean eutsi diezaiogun.

ARANZADI IKASTOLA
Bergara

## Sabin Etxea itxi zutenekoa edo jelkide txintxoaren blues-a

*Egin* egunkaria itxi zutenean nik ez nuen protestarik egin. Ez nintzen *Egin* egunkariaren irakurle.

*Ardi Beltza* itxi zutenean ez nuen protestarik egin. Ez nintzen *Ardi Beltza*-ren irakurle.

Batasuna alderdia legez kanporatu zutenean, eta euren egoitzak itxi, ez nuen protestarik egin. Ni ez nintzen Batasuneko.

Ezker abertzaleko militanteak dozenaka torturatzen eta espetxeratzen zituztenean ez nuen protestarik egin. Ni ez nintzen ezker abertzaleko.

*Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean ez nuen protestarik egin. Nahiz eta nik euskaraz ez irakurri, ondo deritzot euskara hutsezko egunkari bat egoteari; baina ixteko mandatu judiziala goitik etorri zen, eta ni beti izan naiz Legea betetzearen aldeko.

Legea legea da, eta betetzeko dago.

Orain polizia sartu da hona, Sabin Etxera, eta ate-leihoak prezintatzen ari diren ertzainen artean semea ikusi dut:

– Patxi! Baina zer da hau! Zer dela-eta itxi behar duzue Sabin Etxea?

– Aginduak dira, aita, eta aginduak eta Legea betetzeko daude. Hori ondo ikasi dizut zeuri.

– Egia da, Patxi, zure obligazioa agindutakoa betetzea da, legea betetzea..., baina non ote dago gure lehendakaria... Tira, bukatutakoan lagundu egidazu etxera, Patxi, lur jotzear nago-eta.

– Ez aita, gaur ez zara etxera joango. Atxilotuta zaude.

Aurrera *Egunkaria*! Aurrera bolie!

'PUTZ' ALDIZKARIKO PARTAIDEAK
Arrasate

## Aita Menni ospitaleko langileen erantzuna Doltza Gonzalezi

Ze erraza den bestearen lana kritikatzea… Urte asko daramatzagu Aita Mennin lanean, zuk aipatzen duzun ospitale honetan, isilean, inork onartu ezin dituen gaixoak zaintzen. Eta, gogorra da egoera, senitartekoendako ez ezik, baita langileendako ere, ez duzu uste?

Erraza da asteburuan azaldu, egoera deskribatu eta liburu bat idazterakoan bezala adieraztea.

Ez dakit zenbat minututako egonaldia egin duzun eta zelako egoera bizi izan duzun, baina ospitale honetako langileek 24 ordu jarduten dute zaintzan, eta ez dut uste telebista ikusten denbora asko egoten direnik.

Pentsatu duzu langile horiek, egoera zail horri pertsona bezala aurrera egiteko, arnas pixka bat behar dutela? Zure ustez, guztiz ezinduak diren gaixoak "ia gordeta" dauden toki hori, langileendako toki normal bat da. Gaixo horiek, bata zikin, bestea lurrera jausteko zorian daudela diozu. Baina, egon zaitez seguru langileek behin baino gehiagotan aldatu dutela gaixoa eta zure familiartekoari ere ordu askotan lagundu diotela.

Zaila da langileen lana lerro batzuetan zehaztea, baina gonbidatu nahi zaitugu, hurrengo batean ospitalera zatozenean, langileekin hitz egitera, egoeraren berri zehaztasun handiagoz izan dezazun.

MARIJE LIZARRAGA (AITA MENNI OSPITALEKO LANGILEEN ORDEZKARIA)
Arrasate

## Arrasatearrei, eskerrak

Udalak eskerrak eman nahi dizkie arrasatearrei, Saharako errefuxiatuen kanpalekuetarako janari bilketaren kanpainan parte hartu izanagatik.

Kanpaina ezin izango zen aurrera eraman Arrasateko herriaren laguntzarik gabe. Eskerrak eman baita ere parte hartze zuzena izan duten ikastetxeei, gobernuz kanpoko erakundeei, elkarteei, parrokiei eta supermerkatuei.

Azkenik, eskerrak eman Arrasateko herriak saharar herriari erakutsi dion elkartasunarengatik.

ARRASATEKO UDALA
Arrasate

**Gutun gehiago hurrengo orrian.**

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Gutunak

## ‘Egunkaria’ aurrera!

Lerro hauen bitartez, *Egunkaria*-k jasan duen erasoa salatu nahi dugu eta bertako langileei gure elkartasuna helarazi nahi diegu, bereziki Fermin Lazkano bergarararri.

Euskal Herria jasaten ari den erasoei aurre egiteko ezinbestekoa da abertzale guztiok batzea eta Euskal Herriari egituraketa propio bat ematea horrelako erasoak berriz gerta ez daitezen. Izan ere, gaur egun bizi dugun egituraketak horrelako erasoak eta etorriko direnak ahalbidetzen ditu. *Egunkaria*-ko langileen bozeramaileak adierazitakoarekin bat egiten dugu; hau da, Euskal Herriak herri moduan bizitzeko beharrezkoa dauka konpromisoak hartzea eta egituraketa berri bat sortzea.

Bukatzeko, zorionak, joan zen zapatuan Donostiako kaleak bete zituzten euskal herritarrei. Horretaz gain, Ertzaintzak jarritako trabak gaindituz Bergarako kaleetan zehar modu baketsuan *Egunkaria*-ri egindako erasoa salatu zuten bergarararrei ere gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu.

"... TA SEGI AURRERA" BERGARAKO ABERTZALEEN PLATAFORMA
Bergara

## Euskal kulturaren zapalkuntza

Euzko Gaztedin badakigu hamaika ikusteko jaioak garela guztiok, baina Euskal Herriarekiko gertatzen ari diren erasoak sinestezinak suertatzen zaizkigu. Oraingo honetan, *Egunkaria*-ren aurka jo dute eta honekin bat, kate moduan, *Argia, Jakin* eta Ikastolen Elkartea, guztiak ere euskararen aldeko erakunde eta komunikabideak.

Euskara gure hizkuntza izatetik indarkeriaren hizkuntza izatera pasa ote da? Jadanik ez dago ezer ulertzerik, baina hemendik doakizue zuei, euskaltzale zaretenoi, gure elkartasuna eta adierazpen askatasunaren aldeko oihu sakona. EGItik eraso hauek guztiak gaitzesten ditugu, Euskadiren, euskararen eta euskal kulturaren zapalkuntza bezala ulertzen ditugulako.

DEBAGOIENEKO EUZKO GAZTEDI
Debagoiena

## Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren agiria

Del Olmo jaunak *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurka irekitako operazioaren aurrean, eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko Patronatuko kide Joan Mari Torrealdairen atxiloketaren aurrean, Fundazioa osatzen dugunok honakoa adierazi nahi dugu:

- Gure elkartasuna eta arnasa eskaintzen diegu Joan Mari Torrealdai eta atxilotutako beste kideei eta beren senitartekoei.

- Orobat oraingoz azken erasoa jasan duten *Euskaldunon Egunkaria*-ri, Ikastolen Elkarteari, Plazaguneari, Jakini eta Argiari.

- Behin eta berriz euskalgintza susmopean jartzeko ahalegin jarraitua salatzen dugu. Euskara eta euskal kulturaren mundua susmo txarrez kutsatuz, haren hazkundea oztopatzea bilatzen dute.

- Euskalgintzan diharduten enpresa, erakunde, talde eta profesional guztientzat beren jarduera garatzeko normaltasuna bermatzea eskatzen dugu.

- Agintari, alderdi politiko eta gizarte eragileei, eta bereziki hizkuntza eta kultur politikaren arduradunei eskatzen diegu hizkuntzaren eta euskalgintzaren defentsa irmoa egin dezatela eta erakuts dezatela inplikazio publikoa.

- Geure hitza ematen dugu azken hamarkadetan euskalgintzak egin duen aurrerakuntzak eskatzen dituen urrats berriak emanez joango garela euskararen normalizazioaren bide luzean.

FUNDAZIOKO PATRONATUA
Euskal Herria

## ‘Egunkaria’-ko langileekin elkartasuna

Fagor Etxetresna Elektrikoak Kooperatiba Elkarteko Kontseilu Sozialaren Batzorde Iraunkorrak *Egunkaria*-ren itxiera basatia gogor gaitzetsi eta bertako langileekiko elkartasuna adierazi nahi du.

*Egin*-en itxierarekin aurretiaz gertatu zen moduan, interes politikoek eragindako eraso hau guztiz onartezina da. Estatua bere mekanismo eta baliabide guztiak erabiltzen ari da euskaltasunarekin lotutako edozein normalizazio prozesu geldiarazteko, eta egoera honi erantzun egin behar diogu, ezin justifikatuzkoa baita. Gure iritzian, euskal kultura eta euskararen kontrako erasoa da.

Gure pentsamendu eta adierazpen askatasuna urratzen ari direla ikusita, ezin dugu ezer esan gabe egon. *Egunkaria*-ren itxiera euskaldunon duintasunaren kontrako erasoa da, lehengo garaiak gogorarazten dizkigun erasoa. Hori dela-eta, hona gure eskaria:

Batetik, Egunkaria berehala irekitzea. Bestetik, Komunikabide horretako kideak eta langileak aske uztea.

Egunkaria aurrera!

FAGOR ETXETRESNA ELEKTRIKOAK KOOPERATIBA ELKARTEKO KONTSEILU SOZIALAREN BATZORDE IRAUNKORRA
Debagoiena

## Aski da, osasun etxeetan euskaraz!

Euskarak jasaten dituen erasoak ugariak dira, hor ditugu Nafarroako legea, Iparraldeko egoera... Baina ez dugu oso urrun joan behar horrelako kasuak ikusi eta bizitzeko.

Hemen bertan, Arrasaten, euskaldunak 2. mailako herritarrak sentitzen gara. Izan ere, bertako osasun zentroetan eskaintzen diren zerbitzuak ezin ditugu gure hizkuntzan jaso: harreran, gehienetan, erdaraz hartu behar izaten ditugu txandak, pediatra guztiak erdaldunak dira...

Hau guztia nahikoa ez balitz, iazko azaroan, Eusko Jaurlaritzak oposaketak antolatu zituen, 1.800 postu betetzeko. Han ez zen hizkuntza eskakizunik egin. Beraz, Debagoieneko zentroetara etorriko diren langileak erdaldunak izan daitezke. Honek, osasun arloan, euskararako normalkuntza prozesua asko atzeratuko luke.

Euskal herritarrok administrazioan harremanak euskaraz izateko eskubidea eta, batez ere, osasun zerbitzuetan berezko hizkuntzan hitz egiteko eskubidea dugu.

Euskaltzale guztion ardura da hau guztia salatu eta aldatzeko ahaleginak egitea. Aski da, osasun etxeetan euskaraz!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

## Konpromisoei eutsi

*Euskaldunon Egunkaria*-ko langileek *Egunkaria*-ren itxiera eta atxiloketen aurrean honakoa adierazi nahi dugu:

- *Euskaldunon Egunkaria*-k jasan duen polizia operazioa adierazpen askatasunaren aurkako kolpe handia izan da.

- *Euskaldunon Egunkaria* euskarazko egunkari bakarra izanik, eguneroko informazioa euskaraz irakurtzeko eskubidea ukatu zaie herritarrei.

- Euskararen, euskal kulturaren eta euskal gizartearen aurkako erasoa izan da *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera.

- 10 atxilotutatik bost espetxeratuak izan dira eta lau fidantzapean libre utzi dituzte. Atxilotuek jasan duten inkomunikazio eta babesik bareko egoera salatu nahi ditugu.

- 150 langile kalean, haien egoeraren nondik norakoak zeintzuk diren jakin gabe.

- Hala ere, Euskaldunon Egunkariako langileek harpidedunekin, irakurleekin eta herritarrekin dugun konpromisoari eusten diogu, eguneroko informazioa euskaraz emanez eta orain arte bezala herri proiektu independentea bultzatuz.

- Egoera larri hori dela-eta, ezinbestekotzat jotzen dugu indarrak batzea, aurrera egingo bada.

- Horretarako, herrietan batzordeak sortzeko deia egiten dugu, ekimenak elkarlanean egiteko.

‘EUSKALDUNON EGUNKARIA’-KO LANGILEAK
Euskal Herria

## Eskerrik asko, ospitaleko langileei

Eskerrak eman nahi dizkiot Debagoieneko Eskualde Ospitaleko kirurgia taldeari, nahiz eta frogak egin zizkidatenean onena itxoitea zela esan, ez fidatu eta domeka batean ebakuntza egin eta bizitza salbatzeagatik. Eta, eskerrak eman nahi dizkiot, era berean, lehen solairuko erizain, laguntzaile eta abarrei, lanez gainezka egon arren, aurpegi alaiarekin etorri eta mimatu nindutelako. Ospitalean gaixo bakarra izango banintz bezala sentitu naiz.

LOURDES JAUREGI
Bergara

## Aita Menni ospitalearen gainean, Zuzendaritzaren iritzia

Gutun honen bidez, zuen astekarian 2002ko otsailaren 14an agertu zen *Arrasateko Aita Menni ospitaleari kritika* izenburuko gutunari erantzun gura diogu. Hala, testuinguru horretan, honako puntu hauek argitu gura genituzke:

- Zentro honetako Zuzendaritzak Unitate Psikogeriatrikoan egin beharrezko azterketak egin ditu, eta esan dezakegu gutun horretan esaten direnak ez daudela, gure iritziz, justifikatuta.

- Datu objektiboak ditugu, eta datuon arabera, erabiltzaileek eta familiartekoek asebetetze maila altua dute asistentzia-unitate horren funtzionamenduari dagokionez.

- Unitate Psikogeriatrikoan era guztietako mekanismoak daude erabiltzaileek eta familiartekoek euren kexak, kontsultak, iradokizunak, eta abar egin ditzaten, hala nola: *Erreklamazio orriak, Iradokizunetarako postontzia, Erabiltzaileendako arreta zerbitzua* eta, zelan ez, zentroko Zuzendaritzaren disposizio osoa, egiten diren eskaera guztiei erantzuteko.

- Mekanismo horietan ez da gutun hori idatzi zuenaren kexarik jaso, eta, logikoa denez, hori harritzeko modukoa da gu guztiondako.

- Aurrerantzean, mekanismo horiek erabiltzea eskertuko genuke, ezpada beste arrazoi batzuengatik prentsa erabiltzen jarraitu gura dela.

- Zentroaren Zuzendaritzaren iritziz, gai hau behar bezala argituta geratzen da.

Adeitasunez

AITA MENNI OSPITALEKO ZUZENDARITZA
Arrasate

## Udalei dirua kendu estatuari gehiago emateko

Gipuzkoako Foru Aldundiko EAJk eta EAk osatzen duten gobernuak, beste behin ere, beren neurrira egindako aurrekontu proposamena aurkeztu du. Gipuzkoako gizon eta emakumeok ez dugu aurrekontu prozesuan parte hartzeko aukerarik izaten, ez proiektua osa-

tzerakoan ez eta, Gipuzkoako aniztasuna islatuz, aurrekontu partehartzaile eta aurrerakoiak izan daitezen bultzatuz ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak, beraz, Gipuzkoako gizon emakumeoi gipuzkoar guztionak izan beharko liratekeen aurrekontuak erabakitzeko aukera debekatzen digu. Hitza eta eskubidea kendu eta betatu egiten digu, hau guztia demokraziaren eta aniztasunaren izenean.

Eta hori guztia larria balitz, bada gipuzkoar udal ororentzako kaltegarria den beste aspektu edo atala. Izan ere, EAJ eta EA alderdiek aurtengo ikasturterako aurkeztu dituzten aurrekontuak —bataz besteko %5aren igoerarekin— iazkoaren jarraipena baitira.

Eta, beraz, beste behin ere, udalei geroz eta diru gehiago kendu eta Estatu espainiarrari geroz eta sosa gehiago igortzearen operazioan oinarritzen diren aurrekontuak.

Hala, aurtengo aurrekontuek, Udal Finantzaketarako Foru Fondoarendako iaz baino %0,07 euro gutxiago ematea aurrez ikusten dute ( 278.510,83 euro), Lakuako gobernuarendako diru partida iaz baino 4,53 milioi euro handiagoa eta Estatu espainiarrari iaz baino 2,52 milioi euro gehiago emango zaien bitartean. Hots, udalei dirua kendu, Estatu espainiarrari dirua igortzen zaion bitartean. Eta hona "joko" horren beste ondorioa: urteak joan eta urteak etorri kupoaren bidez Estatuari (Erregе etxea, Armada, Guardia Zibila... mantentzeko) ematen zaion dirua (340.724,59 euro) Kultura-Euskara (40.088,96 euro), Nekazaritza-Ingurumena (32.682,62 euro) edo Gizartekintza (140.731,44 euro) sailei batera ematen zaiena baino handiagoa da.

Ezker Abertzaleak urteak daramatza defendatzen udal bakoitzak bere jarduera osoa lantzeko udal autonomia izatea derrigorrezkoa duela. Eta, horretarako, finantziazioa oinarria da. Alabaina, eta zenbakiek dioten moduan, udalek Gipuzkoako herritar eta udalerrietatik jasotzen duten dirutik —gero berriz herrietara itzultzen dena— gero eta gutxiago eskuratzen dute.

Praktika eta jarrera honek, herrien eta herritarren aurkakoa izateaz gain, herriak eta herritarrok kolpatzen gaitu zuzenzuzenean, Debagoieneko herriei barne. Izan ere, udalen premiak geroz eta handiagoak izaki, ezintasun ekonomikoa dela medio gero eta egoera larriagoan aurkitzen baitira gure udalak, herriarendako zein herritarrendako horrek dakartzan egonezina eta kaltea izugarriak direlarik.

Argi dago, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten EAJ eta EA alderdiek Udal autonomiaz eta, oro har, aurrekontu aurrerakoietaz duten ikuspegia. Honen aurrean, debagoiendar orori, bakoitzak bere esparrutik, aurrekontu hauen inguruko iritzia eta ekarpena egiteko gonbitea luzatzen dizugu.

DEBAGOIENEKO SOZIALISTA ABERTZALEAK
Debagoiena

# *Gaia jarrita*

*Egunkaria*-ren itxierak eta euskalgintzako hamar lagun ezagunen atxiloketak, horien inkomunikazio egoerak eta horietako lauren kartzelaratzeak sutan jarri ditu hainbat eta hainbat euskaltzale. *Egunkaria* berriro zabaldu behar dela edo haren ordez beste bat egin eta bultzatu behar dela esaterakoan bat etorri dira indar politiko, sindikatu, elkarte eta taldeetako ordezkariak. Euskararen Kontseiluak dihardu ekintza gehienak bideratzen. Erakunde horretako buruak dihardu gertakari horien gainean.

'EGUNKARIA'-REN ITXIERA

## Milaka eta milaka lagun elkartu gara berriro ere euskarari bai esateko, 'Euskaldunon Egunkaria'-ri bai esateko

Milaka eta milaka lagun elkartu ginen lehengo larunbatean berriro ere euskarari bai esateko, *Euskaldunon Egunkaria*-ri bai esateko.




XABIER MENDIGUREN
Kontseiluko idazkari nagusia

Kontseiluak ez du inolako zalantzarik *Euskaldunon Egunkaria*-k aurrera egingo duela. Egoera zailenetan ere euskal gizartea bere hizkuntzaren aldeko ekimenak abian jarri eta garatzeko gai izan da. Horregatik, orain ere *Egunkaria* aurrera aterako da, beste proiektu asko bezala euskal gizarte osoaren sostengu eta lanari esker.

Ikastolak, helduok euskalduntzeko mugimendua, euskal kultura sustatzeko erakunde desberdinak, euskararen normalizazioaren aldeko mugimendua eta hainbat erakunde milaka eta milaka euskaltzalek bultzatu eta garatu dituzte.

Horregatik, Acebes ministroari esan behar diogu ez dugula bere laguntzarik behar horretarako. Egoera hau hain larria eta gogorra izango ez balitz barre egingo genuke bere hitzak entzunda. Euskarazko komunikabideak itxiz, euskararen alde diharduten erakundeen lana oztopatuz, euskararen alde urtetako lana egin dutenak atxilotu, inkomunikatu, torturatu eta kartzelaratuz ez diote inolako laguntzarik ematen ez euskarari, ez gizarte harremanei, ez herritarren elkarbizitzari. Euskarari egin diezaiokeeten mesederik handiena hizkuntza eskubideak aitortzea da eta euskara eta euskal kulturari inolako trabarik ez jartzea.

> *"Gure hizkuntza eta gure herri izaera aurrera ateratzeko iritzi politiko desberdin guztien gainetik ausardiaz jokatu behar da"*

> *"Ezin gara zain gelditu ea noiz eta nondik etorriko den hurrengo makilakada"*

Larunbatean Donostian bildu ginen milaka lagunak, euskaltzaleak izateaz gain, euskal herritar ere bagara. Eta aitortzen dugu herri honek eskubidea duela bere komunikabideak sortzeko, bere hizkuntza garatzeko eta beste edozein herri bezala bizitzeko.

Kontseiluak dei berezia egin nahi die instituzio, alderdi politiko, sindikatu eta bestelako gizarte eragileei euskararen defentsan eta normalizazio ahaleginetan eragile aktibo izan zaitezten. Egoerak akordio politiko zabala eskatzen du, euskararen normalizazioa garatzeko akordio hori ezinbestekoa baita. Gure hizkuntza eta gure herri izaera aurrera ateratzeko iritzi politiko desberdin guztien gainetik ausardiaz jokatu behar da. Hori izango baita gure etorkizun baketsurako ekarpen eta bermerik hoberenetakoa.

Oraingo honetan *Euskaldunon Egunkaria*, Ikastolak, *Jakin, Argia,* Plazagunea eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa eraso dituzte; lehen, AEK, Zabaltzen, Euskal Herrian Euskaraz, Abokatu Euskaldunak, IKA eta beste hainbat erakundek pairatu dute eraso hori. Une honetan euskararen normalizazioaren aldeko lanean ari garenon babesik ezaren sentimendu izugarria gainditu eta gure eguneroko lanean jarraituko dugu, orain arte bezala, euskararen aldeko konpromiso sozial zabalak lortuz, orain arte izan dugun *Egunkaria* independente, anitz, oso, euskalduna berriz ere kioskoetan izan dezagun eta horrelako erasoak betirako geldiaraz ditzagun.

Kartzelaratutako lagunei gure besarkadarik eta kemenik handiena; inkomunikaturik egun luze eta latzak igaro dituztenei gure ongi etorririk beroena eta gure esku dagoen laguntza osoa; eta Pello Zubiriari indar eta babes guztia, bere osasun egoera larria gainditzeko.

Ezin gara zain gelditu ea noiz eta nondik etorriko den hurrengo makilakada. Ez dute hainbeste urtetako lana zapuztuko. Ez daukagu inolako zalantzarik eta herritarrok euskararen normalizazioari eutsiko diogu. Gure eskubidea delako, gure hizkuntz eskubideekin inork jolasterik onartzen ez dugulako.

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Zelakoa beharko luke izan gure ibarrak 20 urte barru?*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

*Podiuma*

# Alberto Matalobos | ARETXABALETAKO JOKALARIA |

**Umetatik Mondran jokatu ondoren, azken bost urteetan Aretxabaletako taldean dihardu Alberto Matalobosek. Otsaileko jokalari onena izatearren Goiena saria jaso du.**

**Otsaileko futbolari debagoiendar onena izateak zer esan nahi du zuretako?**

Sariak jasotzea beti da pozgarria, eta eskertzen dut sari hau ematea. Hala ere, ez dut uste jokalari onena ni izan naizenik. Otsailean taldeak lan bikaina egin du, hiru partidu irabazi eta bat berdindu dugu. Uste dut hortik etorriko zela saria niri ematea. Taldeak merezi du saria, berdin da nori ematen zaion.

**Aipatu duzu taldeak lan ona egin duela otsailean. Badirudi ez duzuela zailtasunik izango mailari eusteko.**

Sei partidu daramatzagu galdu barik; horrek konfiantza eman digu eta ihes egin dugu sailkapeneko azken postuetatik. Talde moduan jokatzeak garrantzi handia izan du eduki dugun gorakadan.

**Zer gertatu zen, bada, hasieran?**

Galduta geundela uste dut, nor bere aldetik zebilen, eta horrela gaitza izaten da ondo jokatzea. Adibidez, denok ez genuen batera jokatzen, nork bere jokoa egiten zuen. Denboraldiak aurrera egin duen neurrian, taldean urteak daramatzan jendeak taldearen ardura hartzea ere erabakigarria izan da. Orain, jokalariok gustura go sentitzen gara.

**Hasieran, golak sartzeko arazoak zenituzten. Hori ere konpondu dela dirudi.**

Golena bolada kontua izaten da. Denboraldi hasieran, arazoak genituen; orain, ordea, hobeto gabiltza, bolada onean gaudela esan daiteke. Ea mailari eusteko behar diren puntuak lortu eta denboraldi amaiera ona egiten dugun.

**Zein postutan amaitzea espero duzue?**

Uste dut lehenengo bosten artean egoteko taldea daukagula. Liga bost lehenengoen artean amaitu gura nuke. Baikorrak izan behar dugu, eta gure eskuetan dago hori lortzea.

**Mondran hasi zinen futbolean. Orain dela bost urte, ordea, UDAra etorri zinen. Zergatik?**

Umetan eta gaztetan Mondran jokatu nuen. Hirugarren mailan ibili nintzen bi urtean. Urte bi gorengo mailan eman ondoren UDAra joan nintzen. Mondran ez zegoen niretako lekurik, eta horregatik joan nintzen UDAra. Aurten bost urte beteko dira Aretxabaletara etorri nintzenetik. Bost urte hauek oso onak izan dira. Taldekideek eta zaleek ondo hartu ninduten, eta gustura nago Aretxabaleta aldean.

**Ikusiko dugu Alberto berriro Mondrako kamisetarekin?**

Gaitz ikusten dut Mondrara itzultzea. Futbolean ere zenbat urte geratzen zaizkit, bada? Mondrari onena opa diot. Aurreko astean Zumaiakoren aurka galdu arren, mailaz igotzeko faboritoen artean dago. Ea igotzea diren.

OXEL EROSTARBE


O.E.
Aretxabaletan dihardu Alberto Matalobos arrasatearrak.

"Sei partidu daramatzagu galdu barik; horrek konfiantza eman digu eta ihes egin dugu sailkapeneko azken postuetatik"

"Bost urte daramatzat Aretxabaletan; taldekideek eta zaleek ondo hartu ninduten, bost urte hauek oso onak izan dira "

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Gure Txokoa-Bergara: 0-4 / Oiartzun-Aretxabaleta: 0-0 / Aloña Mendi-Pasajes: 2-4 / Mondra-Zumaiako: 0-1

**ASTEKO JOKALARI ONENAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 3 puntu |
| **2.** | Aitor Pérez | (Aretxabaleta) | 2 puntu |
| **3.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 1 puntu |


1
**Gorka San Vicente**
Bergara


2
**Aitor Pérez**
Aretxabaleta


3
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

**Gorka San Vicente**
Lidertza kolokan ikusi eta, bi gol eta hiru puntu!

**Aitor Pérez**
Geldiketa garrantzitsuak egin zituen Oiartzunen.

**Jon Muruamendiaraz**
Gogotsu ibili arren, zortea ez zuen lagun izan.

**SAILKAPEN OROKORRA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara | 12 puntu |
| **2.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 10 puntu |
| **3.** | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |
| **4.** | Eric García | (Aretxabaleta) | 9 puntu |
| **5.** | Alberto Matalobos | (Aretxabaleta) | 6 puntu |


1
**Gorka San Vicente**
Bergara


2
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra


3
**Jon Altzola**
Bergara


4
**Eric García**
Aretxabaleta


5
**Alberto Matalobos**
Aretxabaleta

Goienkaria

*Kirolaburrak*



### HERRI KIROLEN OLINPIADAK/ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko herri kirolen olinpiadak jokatu ziren martitzen arratsaldean. Oñatiko ETEO Fakultateko, Eskola Politeknikoko eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikasleak ibili ziren lehian. Sokatira eta txinga eramate probak egin zituzten lehenik eta behin. Bederatzi taldek neurtu behar zituzten indarrak, eta lokotxak jasotzen, giza probatan, ingudearekin eta auzolanean ere ibili ziren.



### ZIKLOTURISTAK/DEBAGOIENA

Domekan, aurtengo lehenengo irteera egingo dute Debagoieneko zikloturistek. Arrasatekoek eta Bergarakoek antzerako ibilbidea egingo dute. Izan ere, bi elkarteak txirrindularien zaintzaile Dorletako Amabirjinari lore eskaintza egitera hurreratuko dira. Arrasatekoak 09:30ean ekingo diote 48 kilometroko ibilbideari eta eguerdi aldean hamarretakoa egingo dute Dorletako Santutegi inguruan. Bergarakoak, berriz, 09:15ean irtengo dira San Martin plazatik eta eguerdi aldean luncha izango dute Zuloa elkartean.

### PILOTA/ELGETA

Martxoaren 6ra arte zabalik dago Elgetako Lau t'erdiko Txapelketan parte hartzeko izenematea. Aurtengoa txapelketa antolatzen den 28. aldia izango da. Ozkarbi pilota elkarteak izango du txapelketa antolatzeko ardura, eta Euskal Herriko pilotari onenek hartuko dute parte. Inguruko klubek maila bakoitzean bina pilotariren izenak emateko aukera izango dute. Eta gainerako klubek, berriz, maila bakoitzean pilotari bana. Horiez gain, amateur eta gazte mailetan punta-puntan dauden pilotariei txapelketan parte hartzeko aukera emango diete. Txapelketa apiril erdialdera hasiko da seguruenik.

### TXIRRINDULARITZA/ESKORIATZA

Bihar, martxoak 1, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak aurtengo taldeen aurkezpena egingo du. Taldeko txirrindulariek 10:30ean lore eskaintza egingo diote Dorletako Santutegian txirrindularien zaindariari. Horren ondoren, 11.30ean, Apotzagako elkartean taldeen aurkezpena egingo dute. Gazte mailetako talde guztiak aurkeztuko dituzte. Bukatzeko, luncha egingo dute.



OXEL EROSTARBE

# Arantxa Urretabizkaia

KAZETARIA ETA IDAZLEA

## “Azkenaldian, kazetari moduan eskaintzen dizkidaten lan guztiak iritzia emateko dira”

‘EGUNKARIA’

**“*Egunkaria*-k kazetaritzako hizkuntzarekin lan izugarria egin du. *Egunkaria* itxi dute, baina egin duten lana hor dago. Hala ere, nire esperantza da epe laburrean beste bat irtengo dela”**

EUSKAL GATAZKA

**“Ikusten dut talde bakoitza, edo taldexka edo azpitalde bakoitza, berean oso itxia; batzuen eta besteen artean oso zirkulazio txikia dago, eta horrek kezkatu egiten nau”**

Kazetari eta idazle ezaguna, Euskadi Irratiko eta ETBko tertulietan iritzia ematen dihardu azken hilabeteotan. Idazleen artean toki bat egitea lortu duen emakumea dugu. Bergaran egon da oraingo astean Arantxa Urretabizkaia, bere liburuen gainean berbetan.

OXEL EROSTARBE

**Sarritan egiten dituzu ikastetxeetan horrelako berbaldiak?**

Sarritan ez, baina urtean sei-hamar bat bider bai. Pixka bat aldrebesak egiten zaizkit. Adina izango da, baina errepideak atzera egiten dit. Lehengo egunean, Bilbon izan nintzen: sekulako eguraldi txarra, autoa hartu, Bilbora joan, ikastetxea bilatu, buelta atzera berriz... Bere nekeak ditu. Gero, lana bera atsegina da. Baina joan-etorri hori gero eta pisutsuagoa egiten zait. Idazleen lana oso bakartia denez, horrelako ikastaroek irakurleekin harreman zuzena edukitzea eragiten dute. Bakardadearen osagarri dira, horregatik dira atseginak. Sarritan esaten dut idazleok zer egin nahi dugun jakin arren zer egin dugun ez dugula jakiten. Hori irakurleak jakiten du. Horrelako saioetan irakurleak egin duzuna zelan ikusten duen ohartzen zara.

***Zergatik panpox* da zure liburu arrakastatsuena, eta Aranzadi Eskolan ere horren gainean jardun duzue. Ematen diozu garrantziarik arrakastari?**

Ez. *Zergatik panpox* argitaratu zenean, argitaletxeen egoera ez zegoen, orain moduan, normaldua. Eta nik ez dakit hasierako aleak zenbat saldu ziren, ez nuen sosik kobratu, eta editoreak ez du inoiz esan zenbat saldu ziren. *Zergatik panpox* ezagunena izango da, baina nik beti pentsatzen dut momentuan egiten ari naizena aurrekoak baino hobea izango dela. Hori irakurleak esan behar du, ordea.

**Zinemarako *Albaniaren Konkista* idatzi zenuenean hasi zenuen ibilbidea. Ordutik hona aldatu egin duzu idazteko modua?**

Nik nahita ez dut aldatu. Ez bada era sinpleago batera moldatzeko. Egia esan, ahalegin batzuk egin nituen arren, zinema ez zait interesatzen. Literatura gehiago interesatzen zait. Gainera, zinemaren esparrua oso aldrebesa da, oso zaila. Gure gizonak horretan dihardu eta uste dut familian batekin nahikoa dela. Nik nahiago dut literatura.

Idazteko modua aldatu dudan edo ez kritikoek esan behar dute. Beti esaten dut letra kontu hauetan bi eratako pertsonak daudela: batzuk txoriak dira eta beste batzuk ornitologoak, eta bakar batzuk dira bi gauzak batera. Nik ornitologiaz ez dakit ezer. Noizean behin liburu bat idazten dut, baina ez dut teoriarik horren gainean. Idazten dut iruditzen zaidan moduan edo ateratzen zaidan moduan, beste aurreplanteamendu barik. Gainerako hori kritikoei uzten diet.

**Kazetari lanetan 25 urtetik gora daramatzazu. Besteak beste, *Egin*-en, *Deia*-n, *El Diario Vasco*-n, *Zabalik*-en, Euskadi Irratian eta ETBn jardun duzu lanean. Zein desberdintasun dago hasierako Arantxa Urretabizkaia eta gaurkoaren artean?**

Aldaketa nagusia da, *Zabalik* kenduta, eskaintzen dizkidaten lan guztiak iritziak emateko direla. Nik nahiago nuke beste era bateko kazetaritzan lan egitea, baina dagoenari heldu behar zaio. Urte mordoa daramatzat esparru honetan, inon lan finkorik izan barik. Azken boladan iritziak emateko eskatzen didate.

**Esperientzia kontua izango da?**

Ez dakit, bada. Adibidez, *Zabalik* aipatu duzu. Nik gustuko dut elkarrizketak egitea. Gainera, uste dut badaukadala gaitasuna entzuteko besteari, pertsona zelakoa den antzemateko eta galderak behar diren moduan gertatzeko. Baina iritziak eskatzen dizkidate, eta horretan dihardut. Literaturan nahi dudana egiten dut, libre naiz. Kazetaritzan ez naiz horren libre: literatura ez delako nire bizibidea eta kazetaritza bai. Liburu bat idatzi eta ez bazaio inori gustatzen, argitaletxeak, agian, disgustu txiki bat eramango du. Irratian, berriz, hainbat alditan eurei gustatzen ez zaien zerbait egiten badut, “eskerrik asko eta agur” esango didate.

**Komunikabideak aldatu dira?**

Aldatu dira zentzu askotan, eta ez beti zentzurik hoberenean. Egun hauetan, *Egunkaria*-ren gaia denon ahotan dagoela kontuan hartuta, esango nuke aldaketa handienetakoa komunikabide euskaldunak daudela izan dela. Ni kazetaritzan hasi nintzenean ez zegoen ez ETBrik, ez Euskadi Irratirik, ez *Egunkaria*-rik. Pentsa zer diferentzia nagusi den hori.

**Gusturen zein mediotan ibili zara?**

Momentu honetan uste dut gehien irratia gustatzen zaidala. Telebista ez hainbeste, ez dakit den zahartzen ari naizelako eta emakumeoi beti eskatzen zaigulako beti gazte izatea. Gazte ez zarenean zure irudia aldatzen da. Beti gazteak irteten dira eta gazteak ez garenok irteten garenean, beti dago ezerosotasun apur bat. Irratian, berriz, ahotsa bakarrik da. Itxurak ez du axola, eta horrek libreago sentiarazten nau. Euskadi Irratiko tertulian egunero hartzen dut parte. Etxetik egiten dut, gainera, eta hori abantaila handia da.

**Nola hartu duzu *Egunkaria*-ren itxieraren berria?**

Uste dut Euskal Herri erdiak edo gehiagok bezala, gaizki. Urte askoan egin dut lan komunikabideetan eta zera esango nuke, ez *Egunkaria*-gatik, beste batzuengatik baizik, tarteka kolaborazioak egin arren ez dudalako *Egunkaria* barrutik ezagutzen: han edo hemen diru mugimendu arraroak bizi izan ditut. Orain baino lehen nik ere bizi izan dut hori. Agian, bi hilabete kobratu barik egon eta bat-batean kobratzen zenuen. Dirulaguntzak ere handik eta hemendik etortzen ziren. Baina hori kontu bat da eta komunikabide bat ixtea beste kontu bat da. Eta hori barkaezina dela uste dut. Gainera, itxi dutenek hori ez dakiten arren, urte hauetan *Egunkaria*-k kazetaritzako hizkuntzarekin lan izugarria egin du. Kazetaritzan euskaraz lan egiten dugun guztiok mahai gainean ezinbestekoa dugun *Egunkaria*-ren *Estilo Liburua* daukagu. *Egunkaria* itxi dute, baina hangoek egindako lana ezingo dute itxi. Nire esperantza da epe laburrean beste bat irtengo dela.

**Euskadi Irratiko eta ETBko tertulietan diharduzu. Batzuetan badirudi tertulianoek ez dutela egoera ezagutzen.**

Ez guk bezala. Gutako edonorendako, gauza guztiek mila ñabardura dituzte. Kanpoan, aldiz, ez dago ñabardurarik. Ni urteetan Madrilen bizi izan naiz eta TVEn edo *El País*-en diharduten kazetariak lagun ditut. Inoiz zerbait galdetzen dizute eta hasten zara ñabardurak zehazten. Niretako ñabardurak dira axola dutenak; haiei, berriz, ez zaizkie interesatzen. Eurendako zuria edo beltza da eta guretako zuriaren eta beltzaren artean kolore asko dago.

**Atentatuak daudela, *Egunkaria* itxi dutela, Batasuna legez kanporatuko dutela... Giroak nahastuta jarraitzen du. Irtenbiderik ikusten diozu?**

Urtetan, hau betiko zela pentsatu izan dut, horrela ezagutuko nuela beti. Su-etena heldu zenean harrituta geratu nintzen. Gizona kanpoan zen eta orduan 9 urte zituen umea hartu, dotore jantzi eta biok afaltzera joan ginen. Handitan, bakea egun hartan hasi zela gogoratuko zuela esan nion eta ospatu egin behar zela. Afaldu genuen, etxera heldu eta handik hilabete batzuetara… Semeari zer esan ez nekiela geratu nintzen. Orain uste dut berriro ere hau oso luze doala. Ikusten dut talde bakoitza, edo taldexka edo azpitalde bakoitza, berean oso itxia; batzuen eta besteen artean oso zirkulazio txikia dagoela uste dut. Eta horrek kezkatu egiten nau. Lehengo egunean, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko manifestazioan bi edo hiru sozialista egon zirela eta, horrek atera duen zalaparta. Eta sozialistek eurek ere esan dute manifestazio hartan ikusi zituzten asko ez dituztela ikusi beste manifestazio batzuetan. Eta horrelako gauzak komentatzen. Ikusten dut hemen talde bakoitzak irabazi nahi duela, eta denek ezin dute irabazi.


Eraman 3
eta ordaindu 2
3x2
Grupo Eroski
EROSKi
Erosten jakin

# Goienka2a

Kultura eta aisialdia

Egubakoitza / 2003ko otsailaren 28a

**Otsailaren 28tik martxoaren 7ra**



Badaude gure herriotan urtero-urtero mozorro berria asmatzea eta ahalik eta efektu errealista, umoretsu... beteena lortzen ahalegintzen diren lagun edo koadrilak. Eurak dira Aratusteetako benetako "kale animazioa". Estilo desberdinak dituzte: batzuek kontu eta aurrerapen handiz asmatzen eta antolatzen dituzte mozorrook, gehienetan, beste lagun batzuekin batera; beste batzuek, aldiz, nahiago dute azken unean, arrapaladan, lau trapu edo jantzi zahar hartu eta, horiek soinean dituztela, kalerik kale ibiltzea. Eta, hain zuzen ere, gure kaleak kolorez eta umorez betetzen dituzten debagoiendar horiei dago eskainita gure oraingo asteko erreportajea. Hainbat jaizalerekin egin dugu berba, eta denetarik esan digute. Batzuek, penaz, "Aratusteetako giroa ez da sasoi baten izaten zen modukoa", esaten digute, eta bertan behera utzi dute mozorrotzea. Baina beste batzuk badabiltza aurtengo jantzia prestatzen. /17

LEIRE KORTABARRIA

# ARATUSTEAK

## EGUN BATEZ NORTASUNEZ ALDATZEKO AUKERA BIKAINA

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: IMAGE100



Bergarako Udalaren izenean zorionak, GOIENKARIA!

BERGARAKO UDALA

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu 943 30 35 55
943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetar

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero

**JAIAK/ KOADRILEN ARTEKO NORGEHIAGOKA ARATUSTEETAN**

# Mozorroaren arteari eutsi nahian

ARATUSTEEK "BEHERA" EGIN DUTELA DIOTEN ARREN, BESTE URTE BATEZ, IBARREKO ASKO MOZORROTUTA IRTENGO DIRA KALERA

LEIRE KORTABARRIA

**Aratuste jaietan, Debagoieneko herri guztiek antolatu dituzte egun horiek girotzeko hamaikatxo ekintza. Baina, urtero bezala, jai hauei dagokien moduan, benetako kale animazioa herritarrek ipiniko dute, zein baino zein mozorro original, dibertigarri eta harrigarriekin.**

Ibarrekoak, bakarka zein laguntaldean, orain ikusita, irribarrea eragiten diguten argazkien protagonista izan dira, eta orri honetan agertzen direnak eredu txiki bat baino ez dira. Guztiak dira ezagun euren herrietan, urtero ibiltzen direlako Aratusteetan, mozorro originalen bat soinean dutela. Horietariko gehienak aurten ere irtengo dira. Hala ere, batzuek komentatu digute "nekatuta" daudela honezkero, eta horren errua, euren esanetan, giro gero eta makalagoak du: "Aratusteak ez dira lehen bezain alai eta girotsuak, urte gutxi batzuetatik hona", dioskute. "Lehen, zapatutik martitzenera arte zegoen sekulako kale giroa; orain, zapatua izaten da egun handiena, Bergaran, behintzat", dio Bergarako talde batek.

**GAZTEEN TXANDA**

Gure elkarrizketatuek esandakoaren arabera, ematen du helduak gazte jendea baino gehiago animatu izan direla, nahiz eta gazte koadrila askok ere euren jantziekin atentzioa ematen diguten. Akaso garaia izango da, giroa berpizteko, gazte talde gehiagok helduen txanda har dezaten.

**ARRATSALDE EDO GAU PASAN**

Adinen arabera ere Aratusteak ospatzeko modua oso bestelakoa izaten da taldearen arabera. Batzuk arratsaldez irteten dira, ordu pare batez, berriro eginbeharretara bueltatu aurretik. Beste batzuk, ordea, martitzen gauean irtengo dira, goizeko ordu txikietara arte.



**AZKEN UNEKO IDEIAK** Arantxa Muruamendiarazi eta bere lagun koadrilari ez zaie besteek esaten dutena axola: "Gu emakume helduak gara, baina taldean mozorrotzea gustatzen zaigu... Martitzen arratsaldean jantzi eta barre egitera joaten gara", diosku Arantxak. Ez dute aparteko antolaketarik egiten: "Azken uneko mozorroak izaten dira; eguerdian asmatu, eta hiruretan irteten gara", diote.



**ELGETAKO ONENAK** Elgetako onenak dituzue hauek... Txorizo jantzi zireneko urteko argazkia duzue; hala ere, hori baino mozorro harrigarriagorik asmatu izan dute: elgetar guztiek dute gogoan hileta komitiba jantzi zirenekoa, hil-kutxa, "hildako" eta guzti. Miss, arrantzale... ere jantzi izan dira. Euren ordutegia ere badute: "Egubakoitza dugu gustukoen; zazpietatik zazpietara ibiltzen gara kalean".



**BAKARRIK EDO TALDEAN** Jabier Etxebarria aretxabaletarra lagun batekin mozorrotzen zeneko irudia duzue hau; orduan, asko lantzen zituen mozorroak, baina orain, UDA futbol taldekoekin irteten denez –27 lagun–, are ikusgarriagoak izaten dira mozorroak. "Neuk asmatzen dut beti mozorroa, eta besteek onartu egiten dute", diosku Jabierrek, umore onez.



**LAGUN BEHARRIK EZ** Iñaki Gurrutxaga *Harristi* arrasatearrak ez du lagunen faltarik izaten urtero mozorro deigarriren bat asmatzeko. Honako argazkian, inoiz eraman izan duen mozorrorik onenetariko batekin duzue. *Harristi*-k oso gogoko ditu denetariko jaiak, eta aurtengo Aratusteetan ere ezustekoren bat edo beste emango die mondragoetarrei.



**GATZAGAKO ALKATE OHIA** Eugenio Otsoa arrasatearra da, baina Gatzagako alkate izan zen luzaroan, eta Gatzagan ezagunak ziren haren mozorroak. Hona hemen moja jantzi zeneko oroigarria. Gaur egun, Eugenio Polonian bizi da, baina Aratusteak oso gustuko ditu, eta urtero-urtero etortzen da. Aurten ere Gatzagan edo Arrasaten ikusiko dugula komentatu digute.

ANTZERKIA/ 'ANEXIÑUA OÑATIARREZ' BIGARREN ALDIZ IKUSTEKO AUKERA

# Oñatiko historia, agertokian

## SAN MIGELETAN ARRAKASTAZ ESTREINATUTAKO LANA BIHAR ANTZEZTUKO DUTE 56 HERRITARREK

LEIRE KORTABARRIA

**Oñatiko San Migel jaietan, irailean, estreinatu zen *Anexiñua oñatiarrez* Oñatiko gertakari historikoetan oinarritutako antzerki lana. Orduko arrakasta ikusita, antolatzaileek, Makalena kultura elkarteak, bigarren emanaldi bat egitea erabaki dute, bihar, Aratuste-zapatua.**

Ekitaldi jendetsua izan zen, San Migeletan, *Anexiñua oñatiarrez* lanaren estreinaldia. Oñatiarrek ikusmin handia zuten egun batzuk lehenago jendaurrean aurkeztutako izen bereko liburuan oinarritutako antzezlana ikusteko. Liburua Iñazio Irizar egilearen lana zen, Jerardo Elortzaren parte-hartzearekin, euskararen zuzentasunari zegokionez. Liburua antzezlan bihurtzeko ardura nagusia ere Irizarrek berak eraman zuen, baina, jakina, azken emaitzaren kalitatea eta arrakasta lan egin zuten herritar guztien meritua izan zen.

Orain, orduko eskarmentua modu onean erabili ahal izango dute *Anexiñua oñatiarrez* bigarren aldiz agertokira eramateko. Orain, Foruen plaza beharrean, Zubikoa kiroldegiko kantxa izango da aukeratutako lekua; eguna, bihar, eta ordua, 22:30ak.



MAKALENA ELKARTEA

**Irailean, Foruen plazan jokatu zuten antzezlana; bihar, ordea, Zubikoa kiroldegian izango da.**

### ALDAKETA BARIK

"Ez dugu aldaketa apartekorik egin; aldaketa bakarra alderdi teknikoan izan da", azaltzen du Iñazio Irizar idazle eta antolatzaileak. Hortaz, rol guztiak lehengo aktoreek beteko dituzte. 56 izango dira; tartean, paper nagusiak egiten, Itziar Iriondo, Andres Zabala, Ixidro Palazin, Antton Mari Elortza, Jexux Odriozola, Karmen Biain, Ana Maria Markuleta eta Juan Maria Elortza.

Irailean ikusteko aukerarik izan ez zutenek orain izango dute antzezlan horren herrikoitasunaz gozatzeko aukera. Oñati kondderria izatetik Gipuzkoako herri izatera pasatu zeneko une historikoa dakarkigu gogora antzezlan horrek; horregatik, *Oñati Gipuzkoan-1854* izan zen lanaren jatorriko izenburua. Testuinguru historiko horretan, zehazki esateko, Oñatiko herri arduradunek Gipuzkoako zati izan gura zuten edo ez erabakitzeko izan zuten batzarra antzezten da. Horretarako, Oñatik mende luzetako iragana alboratu behar izan zuen.

### OÑATIKO EUSKARA

Hizkuntza aldetik oso aberatsa da lana. Alde batetik, Oñatiko euskara erabiltzen dute, ahalik eta joskera eta berba herrikoienekin, herriko berba propioak aintzat hartuta.

Bestalde, hizkuntza pertsonaien jatorrira moldatzen da: alkateak euskara jasoa erabiltzen du; kaletarrek eta baserritarrek, xumeagoa…

NIREAUKERA




### 'LA FILOSOFÍA, CONTADA CON SENCILLEZ'
### Javier Sádaba

**Filosofiaren gaineko liburu hau gomendatu gurako nuke. Madrilen bizi den Javier Sádaba filosofo bizkaitarrak idatzi du, eta benetan irakurtzea merezi duen liburua dela uste dut. Izenburuak dioen moduan, filosofia modu erakargarrian eta ulerterrazean azaltzen du Sádabak. Oso funtsezko azalpenak ematen ditu, hau da, filosofiaz ez da larregi jakin behar liburua irakurtzeko. Bere lorpen handiena da filosofia desmitifikatzen duela eta erakusten digula pentsatzerakoan geuk ere filosofatu egiten dugula. Ez da liburu sendoegia, eta erraz eta atseginez irakurtzen da.** /L.K.



**Iñigo Arregi**

Artista arrasatearra. Markoztatze denda bat du eta erakusketa prestatzen dabil.

KALERATUBERRIAK/ **Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Didaktikoa




**EGA-KO AZTERKETAK**

**Euskara zerbitzua**
Eusko Jaurlaritza
239 orrialde

Hasieratik beretik ateratzen ditu Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak horrelako liburuak, eta hau da azkena, 2001eko eta 2002ko azterketak dakartzana. Askori tokatzen zaio noizbait azterketa horiek prestatu beharra, eta liburua horretarako oso baliagarria da. Liburu honekin batera saltzen diren 2 CDetan jasota daude bi urteotako atariko probetan eta azterketa idatzietan erabili diren entzutezko ulermeneko ariketak eta ahozkoaren ulermenekoak. EGA azterketarako ikasten dihardutenendako material egokia kaleratzea izan du helburu Jaurlaritzak.

**LIBURUA /** Eleberria




**DENBORAREN IZERDIA**

**Xabier Montoia**
Elkar
221 orrialde

Iban Zalduaren hitzetan, idazkeran soil den liburu hau bi zati oso ezberdinez baina aldi berean guztiz osagarriz osatua dago. Oso klasikoa da eleberri hau, hitzaren zentzurik onenean. Montoiaren eleberriak ihes egiten du *guaykerietatik*, irakurleenganako keinu errazbizkorretatik; 70eko hamarkadan borroka armatuan ibilitako pertsona bat da protagonista, baina ez buruetako bat edo ekintzetan parte hartu duen kide bat, baizik eta atzeguardiako lan grisak egiten zituena. Ezin galdu daitekeen liburu horietako bat da, duda barik.

**DISKOA /** Trikia




**EGUZKI BEGI**

**Laja eta Mikel**
Elkar (Triki)
14 kantu

Herri musikak, euren sortzaile eta interpretatzaileekin batera, edonongo kulturetako banderarik koloretsuenak izan ohi dira; gure herriaren eta zibilizazioaren kronika izateaz gain, horrelako kantu eta melodiak beti dira sinpleak eta eskurakoiak, eta honek errazten du beren transmisioa. Musika herrikoiak herrien kondairak eraberritu eta herritarren ametsak handi bilakatzen ditu. Sakabi, Elgeta... datoz burura disko hau entzuteaz bat. Autodidakta den trikitilariaren piezak. Mikel Alustiza pandero jotzaileak lagundurik.

EUSKARA
Zure unibertsoan







Zorionak
GOIENKARIA!

http: //www.gipuzkoa.net/kultura

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua

# Ots. 28–Mar. 7

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **Aratusteetarako hainbat ospakizun** antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, txokolate eta torrada jana izango da, Zurrategin, 16:00etan; ordubete geroago, leku berean, Zirko Ttipiaren emanaldia; bihar, zapatua, Gazte Asanbladak antolatutako Aratusteetako afaria izango da; eta etzi, domeka, dantza eta musika kalejira, 10:00etan, eta dantza emanaldia, Herriko Plazan, 12:15ean.

### ARAMAIO

► **Honako Aratuste egitaraua** prestatu du Udalak: bihar, zapatua, Mozorro Lehiaketa; 17:30ean, kalejira, kiroldegitik hasita; 18:00etan, sari banaketa, Herriko Plazan, eta txokolate jana. Martitzenean, hilaren 4an, 14:30ean, umeak kalejiran ibiliko dira, plazatik abiatuta; 15:30ean, txokolate jana izango dute, eskolan.

### ARETXABALETA

► **Honako Aratuste egitaraua** antolatu du Udalak: etzi, domeka, 10:00etan, txistulariekin diana; 12:00etan, koadrilen desfilea, txarangarekin; 12:30ean, Txino dantza; 17:30ean, txarangaren kalejira; 18:00etan, txarangak girotutako euskal presoen aldeko agerraldia; eta 19:30ean, aurtengo Mozorro Lehiaketako sari banaketa. Hilaren 4an, Aratustemartitzenean, honako ekitaldiak izango dira: 15:00etan, Incansables txarangaren kalejira; 17:30ean, buruhandiak; 18:00etan, Poko Piko taldearekin umeendako musika festa, Mitarte kalean; 20:30ean, herri afaria, Taberna-Berrin; eta 22:30ean, Txinoaren hileta. Mitarte kaletik Herriko Plazaraino joango dira. Herri afarirako txartelak Taberna-Berrin eta Arlutzen daude salgai, 14 eurotan.

### ARRASATE

► **Andaluzia Eguna** ospatuko du Al-Andalus kultura elkarteak gaur, egubakoitza. 19:00etan, taldeko abesbatzaren emanaldia izango da, eta segidan, luncha. 23:00etan, Gau Flamenkoa izango da, euren egoitzan. Bestalde, bihar, zapatua, parrillada izango da, 12:00etan; jolasak eta askaria umeendako, 16:30ean; elkarteko dantza taldeen eta abesbatzen emanaldia, 18:00etan; bazkideendako afaria, 21:30ean; eta dantzaldia, 00:00etan.

► **Honako ekintzak** antolatu ditu Udalak Aratuste jaietarako: martitzenean, hilaren 4an, kale animazioa, 17:00etan; txarangak girotutako jaia, Herriko Plazan, 18:00etan; aldi berean, erraldoi eta kilikien kalejira; 19:00etan, Pancho Villa Banda taldearen kalejira; 20:00etan, dantzaldia, plazan; eta 22:30ean, sardina-ehorzketa.

### BERGARA

► **Santu Martirien Eguna** dela-eta, jaia izango da bihar, zapatua, Osintxun. 10:00etatik 14:30era, *Osintxuko baserriak argazkitan* delako erakusketa; bertako baserrietako produktuen dastatzea, taberna, eta sagardo dastatzea izango dira, Osintxuko frontoian, plazan eta bolatokian. 12:30ean, Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia eta Perurena aitasemeen eskutik herri kirolak izango dira. 21:00etan, bertso afaria, Txuringo jatetxean, Peña eta Irazu bertsolariekin; segidan, musika, trikitilariekin.

► **Aratuste jaietarako honako ekintzak** antolatu ditu Udalak: martitzenean, martxoaren 4an, 16:30ean, Musika Eskolako txarangaren kalejira izango da; 18:30ean, Gaubela taldearen eskutik, dantzaldia, San Martin plazan; 21:00etan, sardinaehorzketa, San Martin plazan.

### ELGETA

► **Aratuste jaiak direla-eta** ekintza bereziak izango dira gaur, egubakoitza. 14:30ean, umeendako jolasak izango dira, herriko eskolan; gero, askaria. Segidan, jaialdia izango da, Herriko Plazan. Bestalde, kontzertua eta Mozorro Jaialdia izango dira gaztetxean, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Aratuste jaiak direla-eta** hainbat ekintza izango dira datozen egunotan. Bihar, zapatua, 17:30ean, *Koldotxo kobazuloan* antzerkia izango da, Herriko Plazan; 18:00etan, trikitilariekin kalejira; 19:30ean, mozorro dantzaldia, plazan; 23:00etan, txarangaren kalejira; eta 01:00etan, dantzaldia, plazan. Aratuste-martitzenean, hilaren 4an, 11:00etan, umeen jaialdia izango da, Herriko Plazan, eta segidan, txistorra jana; 17:00etan, kukumarroak; 18:00etan, dantzaldia, Herriko Plazan; eta 19:00etan, Herri Aratustea.

### OÑATI

► **Aratusteetako hainbat ekitaldi** izango dira gaurtik aurrera, egubakoitza. Gaur, 18:30ean, txorimaloen kalejira izango da. Bihar, zapatua, 11:30ean, Oñatz taldeak Sorgin dantza aurkeztuko du herrian barrena, hainbat herritarren parte-hartzearekin. 17:30ean, bigarren emanaldi bat izango da. 19:30ean, Foruen plazan Jatorrenak fanfarrearen dantzaldia izango da. Etzi, domeka, 12:30ean, Santa Ana antzokian musika bandaren emanaldia izango da; 18:30ean, Luzaideko Inauteri dantza, Oñatz-en eskutik. Aratuste-martitzenean, hilaren 4an, 17:00etan, umeendako ikuskizuna izango da, kiroldegiko pilotalekuan; 18:30ean, txorimaloak; eta gauean, Hator taldearen erromeria, Herriko Plazan.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Irakurri baino lehen irakurtzen* izenburuko hitzaldia** izango da datorren eguenean, hilak 6, Herri Ikastetxean, 18:00etan eta 18:30ean.

### ARETXABALETA

► **Korrika batzordearen** batzarra izango da martxoaren 5ean, eguaztena, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Kirmen Uribe idazleak** *Bitartean heldu eskutik* poesia liburuaren gaineko berbaldia egingo du eguenean, hilaren 6an, Udal Liburutegian, 18:00etan.

### ELGETA

► **Ezkertiar eta abertzaleen plataforma** aurkeztuko dute bihar, zapatua, Herriko Plazan, 17:30ean.

### ESKORIATZA

► **Udaleku irekietarako begiraleak** behar dira. Begiraleek bete beharreko baldintzak dira 18 urte beteta izatea eta euskaraz ondo jakitea. Argibideak, Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailean.

### OÑATI

► **Piriniotara mendi irteera** antolatu du Aloña Mendi elkarteko mendi sailak, hilaren 8rako eta 9rako. Kranpoiak eta pioleta eramatea, eta mendian federatua egotea, ezinbestekoak izango dira. Izena emateko azken eguna martxoaren 4a da, eta leku kopuru mugatua dago.

## ANTZERKIA

### ARAMAIO

► ***Nori berea, itsasoaren legea* txotxongilo saioa** izango da martitzenean, hilak 4, Herriko Plazan, 17:00etan.

### ARETXABALETA

► **Ainhoa Alberti egilearen antzerki lan bat** taularatuko du Bederen bat taldeak datorren eguenean, hilak 6, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► ***Punto.Rabo* antzezlana** eskainiko du Markeliñe taldeak etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.



► KONTZERTUAK

### THE REZILLOS ETA JUKEBOX TALDEEN KONTZERTUA BERGARAN

Punk musikak Debagoienean duen harrera kontuan hartuta, ziur ongietorri beroa egingo diotela ibarreko zaleek The Rezillos punk eta *power-pop* estiloetako talde mitikoari. Baziren urteak –hamarkadatik gora– The Rezillos taldeak ez zuela ibarrean jotzen; bada, zor hori gaur kitatuko dute, egubakoitza. B'52 eta Devo taldeekin batera The Rezillos 50eko eta 60ko musika eszenako talde berritzaile eta originaletariko bat izan zen. Musika estilo erritmiko eta zirraragarria dute, eta horri estetika jakin bat gehitu zioten, B mailako zientzia-fikziozko zinemako mozorro eta jantzi galaktikoekin. Rezillos taldearekin batera Arrasateko Jukebox taldeak joko du Jam aretoan.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** otsailaren 28an, egubakoitza. **Ordua:** 22:00etan. **Txartelak:** 17 euro.





## 'ERAZTUNEN JAUNA'-REN SOINU-BANDA

Bergarako Bandak eta Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Bergarako pilotalekuan, 22:30ean. Besteak beste, *Eraztunen jauna* film ezaguneko soinu-banda eskainiko dute. Jasotako dirua Josu Cifuentes umeari emateko izango da.

► ***Clin clan clown*** **umeendako antzerki saioa** izango da datorren martitzenean, hilak 4, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

### BERGARA

► ***Katxiporreta*** **ikuskizun berria** eskainiko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek etzi, domeka, pilotalekuan, 16:30ean eta 18:30ean.
► ***Txalozirkus*** **umeendako antzerki lana** eskainiko du Zirko Ttipia taldeak martitzenean, hilaren 4an, Munibe plazan, 17:00etan.

### ELORRIO

► ***Atra bilis (cuando estemos más tranquilas)*** **lana** izango da gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.
► ***Metxa*** **antzerki lana** eskainiko du AEK-Tentazioa taldeak, Korrika Kulturalaren barne, datorren egubakoitzean, Arriola aretoan, 22:30ean.
► **Potxin eta Patxin** pailazoek Aratusteetako emanaldia egingo dute umeendako, datorren martitzenean, hilak 4, Arriola aretoan, 11:00etan.

### OÑATI

► ***Anexiñua oñatiarrez*** **antzerki lana** egingo dute hainbat herritarrek bihar, zapatua, kiroldegian, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Fernando Biderbost** margolari bilbotarraren lanak izango dira ikusgai Maalako Errabaleko Arregi markoztatze dendan, martxoaren 28ra arte.

### ESKORIATZA

► **Euskadiko mugimendu feminis-taren kartelen** erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean, martxoaren 7tik 14ra bitartean, 18:00etatik 20:00etara.

## MUSIKA

### BERGARA

► ***Techno-house*** **jaialdia** izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. Alberto Okiñena, Balza eta Angel disko jartzaileen emanaldia izango da, beste batzuen artean.
► **M.C.D. taldearen 25. urteurrena dela-eta,** kontzertua eskainiko du talde horrek datorren egubakoitzean, martxoak 7, Jam aretoan, 22:00etan.

### ELGETA

► **Trapatoni eta Agirren** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Segidan, Mozorro Jaialdia egingo dute.

### ESKORIATZA

► **Labrit abeslariak** emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, martxoak 7, gaztetxean, 22:00etan.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***Kamchatka***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

***Dragon hill***
Zapatua eta domeka: 17:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***Sin dejar huella***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:30.
Domeka: 16:45, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***La luz prodigiosa***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Olentzero***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***El círculo***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***El jardín de la alegría***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Ocho millas***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

***Hable con ella***
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45.

***Solaris***
Egubakoitza eta domeka: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza: 17:30, 20:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:15, 00:00.

***Bloody Sunday***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***San Woo y su abuela***
Martitzena: 20:00.

***Las hermanas de la Magdalena***
Eguaztena: 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Ocho millas***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Las horas***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:45.
Domeka: 20:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Amor con preaviso***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Hable con ella***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Auto focus***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 19:45.

***El jardín de la alegría***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Un hombre sin pasado***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Novo***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Frida***
